

Hezkuntza Laguntzako Especialistaren GIDA

iruten



Inklusibitate erantz



EDUKIEN AURKIBIDEA

1. KONTRATU MOTAK.....	5
1.1. FINKOAK.....	5
1.2. LEP ARTEKOAK.....	5
1.3. EKOIZPEN GORABEHERAK DIRELA-ETA ALDI BATERAKO KONTRATUAK.....	5
2. LEKUALDATZE LEHIAKETA.....	6
3. JARDUNA.....	7
3.1. JARDUN OSOKO KONTRATUAK.....	7
3.3. JARDUN ERDIKO KONTRATUAK.....	7
3.3. KOORDINAKETAK, KLAUSTROAK ETA BERRITZEGUNEN BILERAK.....	8
3.4. JANTOKIA.....	8
3.5. GARRAIOA	9
4. LIZENTZIAK ETA BAIMENAK.....	10
4.1. IRAKASLE ZERRENDETARA PASATZEKO BAIMENA*.....	10
4.2. NORBERA EDO SENIDEAK EZKONTZEAGATIK HARTUTAKO LIZENTZIAK.....	11
4.3. SENIDEEN GAIXOTASUN LARRIAGATIK EDO HERIOTZAGATIKO LIZENTZIA.....	11
4.4. NAHITAEZKO BETEBEHAR PUBLIKOAK EDO NORBERAREN BETEBEHARRAK BETETZEKO LIZENTZIAK.....	12
4.5. OHIKO ETXEBIZITZAZ ALDATZEKO LIZENTZIAK.....	13
4.6. SINDIKATUAREN EDO LANGILERIAREN ORDEZKARI GISA JARDUTEKO LIZENTZIA.....	13
4.7. GAIXOTASUN KRONIKOREN BAT EDO MUGITZEKO ARAZOAK DITUZTEN SENIDEEI LAGUNTZEKO BAIMENA.....	13
4.8. IKASKETAK EDO PRAKTIKAK EGITEKO BAIMENA.....	13
4.9. AZTERKETETAN PARTE HARTZEKO BAIMENA.....	13
4.10. KONTSULTA, TRATAMENDU ETA AZTERKETA MEDIKOETARA JOATEKO BAIMENA.....	13
4.11. ZIENTZIA-, TEKNIKA-, LANBIDE-, ELKARGO-, ELKARTE-, ETA SINDIKATU- IZAERAKO GERTAKIZUN KOLEKTIBOETARA JOATEKO BAIMENA.....	14
4.12. KARGU HAUTETSIARI DAGOZKION ZEREGINAK EGITEKO BAIMENA.....	14
4.13. NORBERAREN EGINKIZUNETARAKO BAIMENA.....	14
5. ESZEDENTZIA ETA MURRIZKETAK.....	16
5.1. BORONDATEZKOAK.....	16
5.1.1. SEME-ALABAK ZAINTZA 3 URTERA ARTEKOA.....	16
5.1.2. ODOL-AHAIDETASUNEN EDO EZKONTZA-AHAIDETASUNEN BIGARREN MAILARA ARTEKO SENIDEAK ZAINTZEKO.....	17
5.1.3. BORONDATEZKOA.....	17

5.1.4. BEREZIA.....	17
5.2. NAHITAEZKOAK.....	17
5.3. URTE SABATIKOA.....	18
5.4. JARDUN MURRIZKETAK.....	18
5.4.1. ADINGABEKOAK ZAINZKEKO MURRIZKETA.....	18
5.4.2. ODOL-AHAIDETASUNEN EDO EZKONTZA-AHAIDETASUNEN BIGARREN MAILARA ARTEKO SENIDEAK ZAINZKEKO MURRIZKETA.....	18
5.4.3. BORONDATEZKOAK.....	19
6. ORDAINSARIAK.....	20
6.1. LANSARIAK.....	20
1.6.2. HIRURTEKOAK.....	20
6.3. AURRERAKINAK.....	20
6.4.- IRPFa 2022an.....	21
7. GIZARTE FUNTSA.....	22
7.1. ESKABIDEA ETA DOKUMENTAZIOA.....	22
8. FORMAZIO FUNTSA.....	24
9. IRALE ETA PREST GARA.....	25
9.1. IRALE.....	25
9.2. PREST GARA.....	25
10. FUNTZIOAK.....	26
11. ORDEZKAPENAK.....	28
11.1. ZERRENDEN IREKIERAN BEHARREZKOAK DIREN AGIRIAK.....	28
11.2. ZERRENDAKO BAREMAZIO IRIZPIDEAK.....	28
11.3. FUNTZIONAMENDUA ETA SALBUESPENAK.....	29
11.3.1. ORDEZKAPENETARAKO ZERRENDEN FUNTZIONAMENDUA.....	29
11.3.2. FUNTZIONAMENDU OROKORRAREKIKO SALBUESPENAK.....	32
11.3.3. ORDEZKAPENEN UKO EGITEKO ARRAZIOAK ZERRENDETATIK ERORI GABE.....	33
1.3.4. ZERRENDATIK BAZTERTZEKO ARRAZIOAK.....	35
11.3.5. ZERRENDETATIK KANPORATZEAREN ONDORIOAK.....	36
11.3.6. ZERRENDEN KUDEAKETA. ORDEZKAGUNEA.....	36
11.3.7. ZERRENDAKO HURRENKERA ETA POSIZIOAREN XEHETASUNAK.....	37
11.4. BIRBAREMAZIOAK.....	37
11.5. BAREMAZIO IRIZPIDEAK.....	38
12. ESLEIPENAK.....	39
12.1. FINKOAK, LEP ARTEKOAK (BAKANTEAK) ETA SENTENTZIA BIDEZKO MUGAGABE EZ FINKOAK.....	39
12.2. ORDEZKOAK	40
12.2.1. PROZEDURA.....	40

13. HAURDUNALDIA, GURASOTASUNA ETA EDOSKITZEA.....	44
13.1. LANEKO ARRISKUAK HAURDUNALDIAN.....	44
13.2. AMA BIOLOGIKOAREN JAIOTZAGATIKO BAIMENA ETA AMA BIOLOGIKOA EZ DEN BESTE GURASOAREN SEME-ALABAREN JAIOTZA BAIMENA.....	44
13.3. EDOSKITZEA.....	46
13.4. ADOPZIO, ADOPZIO AURREKO ZAINZTA EDO HARRERA ALDI BATERAKO ZEIN IRAUNKORGATIKO BAIMENA.....	46
14. LAN ISTRIPUAK/ BAJA ARRUNTAK.....	48
15. LANGABEZIA.....	49
16. OHIKO GALDERAK.....	50
17. LANEKO OSASUNA ETA SEGURTASUNA.....	52
18. URTEKO KRONOGRAMA.....	53
19. HEZKUNTZA LURRALDE ORDEZKARITZETAKO TELEFONO ETA EMAILAK.....	54
IRAKASLE ZERRENDETARA PASATZEKO BAIMENA ESKATZEKO EREDUA.....	55

1. KONTRATU MOTAK

1.1. FINKOAK

Berritzeguneari atxikitutako plazak dira. Berritzegunez aldatu nahi izanez gero lekualdatze lehiaketan parte hartu behar da (apirila aldera eskaera egiten da, maiatza aldera behin behineko zerrenda ateratzen da eta ekaina aldera erreklamazioak eta behin betiko zerrendak agertzen dira). *(Ikusi 18. puntuan urteko kronograma)*

1.2. LEP ARTEKOAK

Mugagabe ez finkoak (LEP arteko bakanteak): LEPa izan arteko plazak dira edo finko batek zure kodigo eta dotazioa hartu arte. Kasu horretan, desplazatua izan den langileak berritzegune bereko plaza libre bat aukeratu beharko luke, plaza hauek berritzeguneari atxikituta daudelako. Finko batek lekualdatze lehiaketan zure kodigoa eta dotazio duen plaza hartzen badu bakantea galtzen duzu eta ekaineko esleipenetara zoaz.

Jardun erdiko bakantei ikasturtea bukatu baino arinago uko egiteko aukera egongo da ikasturte hasierako esleipenetan parte hartu ahal izateko.

Ikasturte hasierako esleipenetan jardun erdiko bakante bat eskuratuz gero ikasturtean zehar jardun osoko bakante bat egongo balitz aukera egongo da hauek hartzeko.

Ikasturte hasierako beharrian berriei erantzuteko, irailean eta urrian egiten diren kontratuak bakante moduan eskainiko dira.

1.3. EKOIZPEN GORABEHERAK DIRELA-ETA ALDI BATERAKO KONTRATUAK

Azarotik aurrera beharrian berriei erantzuteko egiten diren kontratuak “Ekoizpen gorabeherak direla-eta aldi baterako kontratuak” izango dira eta ekainak 30 arteko iraupena izango dute.

2. LEKUALDATZE LEHIAKETA

Hezkuntza Bereziko pertsonal finkoek bakarrik hartzen dute parte lehiaketan. Lekualdatzea berritzegunez aldatzeko prozesua da eta urtero egiten da.

Eskaera apirilean egiten da, maiatzean behin-behineko zerrendak ateratzen dira eta ekainean erreklamazioak egin daitezke. Hauek ebatzi eta gero behin betiko zerrendak argitaratuko dira. Tramiteak irakasle.eus bitartez egiten dira. (Ikusi 18. puntuan urteko kronograma).

Lanpostu bera hartzeko langile bat baino gehiago aurkezten bada, Batzorde Parekideak baremo bat egingo du, honako irizpide hauek kontuan izanik:

- Norberaren barrutian soberazkoa den langilea
- Enpresako pertsonal finko gisako antzintasuna
- Zerbitzua harena ez den beste barruti batean ematea, zerbitzu emate hori soberakoa izateak eragiten badu
- LEP sartzeko nota
- Adinez nagusia

Lanpostu berrian lanean hasteko epea esleipena egin ondorengo ikasturtearen hasiera izango da.

Prozedura horren bitartez lanpostua lortu duten langileek gutxienez bi urte egon beharko dute bertan, beste lekualdatzeren batean parte hartu ahal izateko.

Urtero, ikasturte bukaeran, berritzeguneko barrutian lanean diharduten Hezkuntza Laguntzako Espezialistek bete beharko dituzten ikastetxea/k banatzeari ekingo zaio.

3. JARDUNA

Ikasturteari hasiera ematen zaionetik hilabeteko epean bere lanean bete beharko dituen egutegia eta ordutegia jakinaraziko zaizkio langileari. Egutegi hori ikasturte osoan aplikatzekoa izango da, eta egon daitezken aldaketak betiere salbuespeneko izaera izango dute eta haien berri behar bezala emango da.

Urteko jardunaldia gehienez 1480 ordukoa izango da eta ikastetxe bakoitzaren eskola-egutegira egokitu beharko da.

Egutegia ikastetxeko bera izango da. Ikastetxe bitan arituz gero, lan ordu gehien egiten den ikastetxekoa beteko da.

Ikastetxean egon beharreko ordutegian honako jarduera hauek gauzatuko dira: materialen prestakuntza, gainerako profesionalekiko koordinazioa, klaustroan parte hartzea, gurasoekin bilerak, ikastetxeko bileren parte hartzea, berritzegunetako bilerak.

3.1. JARDUN OSOKO KONTRATUAK

Ordutegia, zerbitzua ematen den ikastetxean ikasleak sartu eta ateratzen diren ordutegiarekin bat etorriko da.

Asteko lanaldia gehienez 37,5 ordukoa izango da. Asteko ordutegiaren zenbaketan sartuko dira zuzeneko arreta orduak, berritzegunearen eta ikastetxearen arteko koordinazioa eta materiala prestatzeko denbora.

Eguneko arreta zuzena 6 ordukoa izango da gehienez. Ikastetxearen antolakuntza ahalbidetzearren, eta 6 orduko arreta zuzen hori bideratzea ezinezkoa denean, astean gehienez 30 orduko arreta zuzena egokituko da.

Koordinazio zereginetarako eta ikastetxean materiala prestatzeko 2 ordu eta 30 minutu izango dira.

Garraio denbora eta jantoki zerbitzua zuzeneko arretatzat hartuko dira.

Ikastetxe bitan arituz gero, batetik besterako joan etorriak lan orduak bezala kontatuko dira. Ikastetxe bien arteko bidea 2 km baino luzeagoa bada, norberaren garraioa edo garraio publikoaren gastuak ordainduko dira.

3.3. JARDUN ERDIKO KONTRATUAK

Asteko lanaldia gehienez 18,45 ordukoa izango da. Asteko ordutegiaren zenbaketan sartuko dira zuzeneko arreta orduak, berritzegunearen eta ikastetxearen arteko koordinazioa eta materialak prestatzeko denbora.

Eguneko arreta zuzena 3 ordukoa izango da gehienez, ikastetxearen antolakuntza ahalbidetzarren, eta 3 orduko arreta zuzen hori bideratzea ezinezkoa denean, astean gehienez 15 orduko arreta zuzena egokituko da. Garraioa denbora eta jantoki-zerbitzuko orduak arreta zuzentzat hartuko dira.

Jardun erdiko kontratuetan 2 ikastetxean egin daiteke lan baina egun desberdinetan.

3.3. KOORDINAKETAK, KLAUSTROAK ETA BERRITZEGUNEKO BILERAK

Koordinaketa eta material prestaketarako hilabeteko 10 ordu dira, 2,5 ordu astean jardun osoko kontratuetan eta jardun erdiko kontratuetan hilabeteko 5 ordu, 1,15 ordu astean.

Koordinazio orduen barruan, ikastetxearen zuzendaritzak hezitzaileei klaustroko saioetan parte hartzeko aukera eskainiko die, koordinazioa hobetzeko eta-integrazioa ahalbidetze aldera.

Berritzegunearekin, ikasturtean zehar, lau koordinazio/formakuntza saio egongo dira. , bertan berritzeguneak zein langileek proposatutako gaiak landuko dira.

Berritzeguneko bilerak asteko jardunaren barruan izango dira.

3.4. JANTOKIA

Jantoki-zerbitzuko orduak arreta zuzentzat hartuko dira.

Jantoki-zerbitzua erabiltzen duten ikasleak (arreta eskola-jantokian/arreta jolastokian) autonomia pertsonal edo sozialeko programa bati lotuta egongo dira. Kasu horretan, ikastetxeari esleitutako Hezkuntza Laguntzako Espezialista guztiek (jantoki-zerbitzua duten ikasleak esleituta ez dituztenak barne) jantoki-zerbitzuan jardun beharko dute, txandaka eta modu partekatuan.

Jardun osoko kontratuen kasuan, bazkaltzeko eguneko ordu bete dagokio langileari eta lan ordutzat joko da jantoki zerbitzuan arreta emanaz gero. Ordu horretan ikastetxean zein ikastetxetik at egon daiteke. Jantokian eta eguerdiko patioan lan eginez gero jantoki menua hartzeko eskubidea dago.

Jardun erdiko kontratuen kasuan, bazkaltzeko eguneko 30 minutu dagokio langileari eta lan ordutzat joko da jantoki zerbitzuan arreta emanaz gero. Ordu horretan ikastetxean zein ikastetxetik at egon daiteke. Jantokian eta eguerdiko patioan lan eginez gero jantoki menua hartzeko eskubidea dago.

Lanaldi erdien kasuetan eta murrizketa duten lanaldi osoen kontuan, HLE bakoitzak eskola-jantokian duen egiazko ordutegiaren araberako proportzioa izango da zenbaketa.

Jantokian egon behar duen HLE pertsonalaren bazkaltzeko denbora 12:00tik 15:00ak arte izango da.

3.5. GARRAIOA

Garraio-zerbitzuko orduak arreta zuzentzat hartuko dira.

Garraioa, soilik, ikaslearen autonomia pertsonaleko programa bati erantzuten dionean gertatuko da; programa aldi baterako izango da eta dagokion ebaluazioa egingo zaio.

4. LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

1.maila: Seme/Alaba- Bikotekide/Ezkontidea -Gurasoak-
 Amaginarreba/aitaginarreba -Erraina-Suhia

2.maila: Neba/Arreba- Aitona/Amona- Koinata/Koinatu-biloba

Maila urrunagokoak: Izeba/Osaba – iloba – Birraitona/Birramona/ Lehengusu-
 Lehengusina

4.maila: Lehengusina/Lehengusua

4.1. IRAKASLE ZERRENDETARA PASATZEKO BAIMENA*

Irakasle zerrendetan lan egiteko, heziketa bereziko lanpostu bati uko egiteko aukera dago. Horretarako hiru bide erabili daitezke kasuan kasu:

- Irakaskuntza funtzioetako aldi baterako uko egitea:

Bakante kontratua eta ordezkapen kontratua dutenek gutxienez 3 urteko lan zerbitzua izan behar dute pilotuta, zerrendetatik kanporatua ez izateko. Hala ere, indarrean daukan lan kontratua galduko da.

Prozedura: Irakasle lanpostua esleitu eta gero e-mail bat idatzi behar da sindikatuekiko harremanetarako departamentura, Lakuan: huils016@euskadi.eus.

- Bateriaezintasun eszedentzia

Finkoek irakasle zerrendetan lan egiteko aukera daukate. Baimen honek ere administrazioko beste lanpostuetara lan egitera joateko balio du.

Prozedura: Bateriaezintasun eskaera egin behar da, sindikatuekiko harremanetarako departamentuan, Lakuan: huils016@euskadi.eus.

Heziketa Bereziko lanpostura bueltatzeko, berriro e-mail bat bidali beharko da aurreko emailera. Hau egiteko hilabeteko epea egongo da eta nahi bezain beste aldiz egiteko aukera egongo da.

Indarrean dagoen lanpostua ez da gordetzen.

Lanerako buelta ez da ikasturtean zehar izango. Hurrengo ikasturteko irailera arte itxaron behako da lanpostura itzultzeko.

- Eszedentzia berezia

Enplegua banatzeko neurrien barruan eszedentzia hartzeko aukera dago. Enpresan gutxienez bi urteko antzintasuna duen langileari borondatezko eszedentzia berezia onartuko zaio, eta lan egiten duen berritzegune berean lanpostua gordeko zaio,

gutxienez sei hilabete eta gehienez urtebetekoa izango da. Eskubide hori ezin izango du langile berak gauzatu harik eta aurreko eszedentziatik bi urte igaro arte.

*Eskaera egiteko eredia txostenaren bukaeran daukazue

4.2. NORBERA EDO SENIDEAK EZKONTZEAGATIK HARTUTAKO LIZENTZIAK


Langileak 20 egutegi-eguneko lizentzia izango du ezkontzagatik. Lizentzia ezkontza ospatu baino lehen edo ospatu ondoren hartu ahal izango da, baina, edonola ere, ezkontzaren eguna epealdiaren barruan geratuko da. Lizentzia hori oporraldiari gehitu ahal zaio aurretik zein atzetik; horrela eginez gero, dagokion lurralde-ordezkaritzan adierazi behar da, gutxienez 15 egun lehenago. Era berean, bikoteko bizikidetzaren egonkorrean hasten den langileak lizentzia honetaz baliatzeko eskubidea izango du. Ezkontza edo bizikidetzaren egonkorra dela eta, ezin izango de beste lizentzia bat hartu 6 urte igaro arte eta inolaz ere ez bikoteko kideak berberak direnean.

Ezkontza langilearen gurasoena, aita-amaginarrebarena, neba-arrebena, suhi-errainena, seme-alabena, ilobena edo aitona-amonena denean, langileak ezkontza eguna izango du libre, baina, ospakizuna langilearen bizilekutik 150km baino urrutiago egiten bada, hiru egutegi-egun emango dira libre.

4.3. SENIDEEN GAIXOTASUN LARRIAGATIK EDO HERIOTZAGATIKO LIZENTZIA

AHAIDETASUN MAILA			Udalerr bera	Udalerr ezberdina	150 km baino gehiago
HERIOTZA	1. mailakoak	Seme/alaba Bikotekidea Ezkontidea	5 lanegun		2 egun natural gehiago
		Gurasoak Erreina-suhia Amaginarreba-aitaginarreba	3 lanegun	5 lanegun	
	2. mailakoak	Neba-arrebak Amama-aitite Koinatu-Koinata Biloba	3 lanegun	4 lanegun	Egun natural 1 gehiago
		Maila urrunagokoak elkarrekin bizi badira	Izeco-osaba lloba Biramama-biraitite Lehengusu-lehengusina	3 lanegun	
ISTRIPU edo GAIXOTASUN LARRIA, OSPITALARATZEA edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen ebakuntza kirurgikoa	1. mailakoak	Seme/alaba Bikotekidea Ezkontidea	5 lanegun		2 egun natural gehiago
		Gurasoak Erreina-suhia Amaginarreba-aitaginarreba	3 lanegun	5 lanegun	
	2. mailakoak	Neba-arrebak Amama-aitite Koinatu-Koinata Biloba	2 lanegun	4 lanegun	
		Maila urrunagokoak elkarrekin bizi badira	Izeco-osaba lloba Biramama-biraitite Lehengusu-lehengusina	2 lanegun	

- Udalerrri ezberdina: langilearen **BIZILEKUA** kontuan hartzen da.
- **ISTRIPU** edo **GAIXOTASUN LARRIA**, **OSPITALARATZEA** edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen ebakuntza kirurgikoa: medikuaren ziurtagiri bidez egiaztatuta behar da.
- Ospitaleratzearen kasuan: ospitaleratzeak irauten duen bitartean.
- Ospitaleratu gabeko ebakuntzaren kasuan: mediku egiaztagiria eta mediku txostena (behar diren egunak justifikatuz) eskatzen da.



 >irakaskuntza

- Udallerri ezberdina: langilearen BIZILEKUA kontuan hartzen da.
- ISTRIPU edo GAIXOTASUN LARRIA, OSPITALERATZEA edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen ebakuntza kirurgikoa: medikuaren ziurtagiri bidez egiaztatu beharko da.
- Ospitaleratzearen kasuan: Lizentzia jarraian edo zatituta hartu daiteke ospitaleratzeak irauten duen bitartean.
- Ospitaleratu gabeko ebakuntzaren kasuan: mediku egiaztagiria eta mediku txostena (behar diren egunak justifikatuz) eskatzen da.

Odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen egiaztaturiko gaixotasun larrien kasuan, edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen egiaztaturiko gaixotasun larrien kasuan, epealdi berdineko beste lizentzia bat hartzeko eskubidea izango du langileak, lehenengo lizentzia bukatzen denetik ondoko ondoko 30 egun igaro ondoren. Behar bezala egiaztatuko azkenburuko gaixotasunen kasuan, berriz, ez da 30 eguneko epea egongo, eta ezin izango da erabili ohiko bizitokiko distantziagatiko luzapena.

4.4. NAHITAEZKO BETEBEHAR PUBLIKOAK EDO NORBERAREN BETEBEHARRAK BETETZEKO LIZENTZIAK

Ezinbestez bete behar diren betebehar publikoak edo norberaren betebeharrak egiteko, behar beste denbora izango dute langileek, baldin eta lanorduetatik kanpo egiterik ez badago.

Kasuak hurrengoak dira:

- Epaitegi, komisaldegia, gobernu zibil edo militarretatik zitazioak, ikuskapen militarrek edo arma-ikuskapenak, NAN, pasaportea, egiaztagiria eta erregistro-izapideak, erakunde ofizialetan.
- Elbarri fisikoak edo psikikoak diren odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideei izapide zehatzak egiten laguntzea.
- Gida-baimena eskuratzeko edo berritzeko azterketa.
- Notarioen errekerimenduak eta izapideak.
- Zinegotzi, diputatu, ahaldun edo batzarkide gisako hautetsi legez, gobernu-organoen eta berauen menpeko batzordeen bileretara joateko.

4.5. OHIKO ETXEBIZITZAZ ALDATZEKO LIZENTZIAK

Langileak ohiko bizilekuaz aldatu behar duenean, 2 laneguneko lizentzia hartzeko eskubidea izango du. Errolda-ziurtagiriaz egiaztatu beharko du hori. Baimena errolda aldaketa eta hamabost egun lehenago edo beranduago egin hartu behar da.

4.6. SINDIKATUAREN EDO LANGILERIAREN ORDEZKARI GISA JARDUTEKO LIZENTZIA

Sindikatuan edo langileriaren ordezkari-lanak egiten dituzten langileek horri dagokion lizentzia hartzeko eskubidea izango dute.

4.7. GAIXOTASUN KRONIKOREN BAT EDO MUGITZEKO ARAZOAK DITUZTEN SENIDEEI LAGUNTZEKO BAIMENA

Langileak mugitzeko arazoak dituen edo gaitz larri jarraituren bat duen odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideren bat edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideren bat zaindu behar badu, langileak ordaindutako berrogeita hamar ordu arteko baimena izango du ikasturte bakoitzeko. Oro har, ordu-kreditu hori erabiltzeko egunean har daitekeen denbora bi ordu izango dira gehienez, eta ordu horiek lanera sartzearekin edo lanetik irtetearekin batera erabili beharko dira.

4.8. IKASKETAK EDO TA PRAKTIKAK EGITEKO BAIMENA

Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak baimen hori eman dezake, behar adina luzatuko da, ordainsariei borondatez uko egin da.

4.9. AZTERKETETAN PARTE HARTZEKO BAIMENA

Langileek zentro ofizialetako edo homologatuetako azterketetara joateko baimen-eskubidea izango dute. Egutegiko egun bat emango zaie azterketa bakoitzeko -bai deialdi arruntetan, bai ohiz kanpoko deialdietan-, aldez aurretik egiaztagiria aurkezten badute. Baimena bi egutegi egunez luzatuko da, azterketa-lekua azterketa egiten duenaren ohiko egoitzatik 150 km baino urrunago baldin badago. Baimen hau ordaindu egingo da.

4.10. KONTSULTA, TRATAMENDU ETA AZTERKETA MEDIKOETARA JOATEKO BAIMENA

Langileek eskubidea dute lanaldiaren barruan kontsulta, tratamendu eta medikuaren azterketa egitera joateko, arazoak behar bezala egiaztatzen badituzte eta osasun-zentro horietan bestelako kontsulta-ordurik ez badute langilea lanorduetatik at joateko.

Haurdunaldian dagoen emakumeak erditzea prestatzeko teknikak ikastera eta jaioren aurreko azterketak egitera joateko behar beste denborarako baimena izango du, eta ordaindu egingo zaio. Astean lau ordu izango dira, goitik jota. Horretarako, egiaztatu egin beharko da jarduerak lanaldiaren barruan egin behar direla eta benetan joan behar dela.

4.11. ZIENTZIA-, TEKNIKA-, LANBIDE-, ELKARGO-, ELKARTE-, ETA SINDIKATU-IZAERAKO GERTAKIZUN KOLEKTIBOETARA JOATEKO BAIMENA

Biltzar, ikastaldi, ikastaro, mintegi, symposium, topaketa, lehiaketa, elkarrizketa, hitzaldi, bilera, jardunaldi eta zientzia-, teknika-, lanbide-, elkargo-, elkarte-, eta sindikatu-izaerako bestelako ekitaldi kolektiboetara joateko baimena eman ahal izango zaie langileei, zerbitzuaren beharrezan kontuan izanik eta dagokion lurralde-ordezkaritzak baimendu ondoren.

Langileak bere kabuz eskatutako baimena denean, bost egunera arte ordainduko da. Muga horretatik gorako soberakina, berriz, ez da ordainduko, eta ez da kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, ez dietarik, ez bidai-gasturik, ez egonaldi- edo inskripzio-gasturik, ez beste ezer, den-denak langilearen kontura izango baitira.

4.12. KARGU HAUTETSIARI DAGOZKION ZEREGINAK EGITEKO BAIMENA

Instituzioetako kargu hautetsiak diren langileek baimena izango dute kargu horiei dagozkien zereginak betetzeko, behar adina denbora eduki ere, baldin eta orduen kopuru osoak urteko lanaldiaren %10 gainditzen ez badu.

Egoera horretan dauden langileek lanaldi arrunteko orduak murrizteko baimena har dezakete. Murrizketa hori lanegunaren bostenekoa, herenekoa edo erdikoa izango da, eta lansariaren atal guztien heineko beherapena ekarriko du bere baitan.

4.13. NORBERAREN EGINKIZUNETARAKO BAIMENA

- Norberaren eginkizunetarako baimena, oso arrazoi bereziagatik ez bada, ezin izango da eskatu jardunean hasi edo lanera itzuli eta urtebete igaro arte.

- Norberaren eginkizunetarako baimen-aldietan ez da ezer ordainduko; gainera, baimen-aldia oporrei kenduko zaie hein berean. Iraupena, guztira, ezin izango da hiru hilabetekoa baino luzeagoa izan bi urtetik behin.

Baimena ikasketa ofizialak egiteko eskatzen denean, urtean ondoz ondoko lau hilabete eman ahalko dira gehienez.

Hala zehazten den kasuetan, ikasketa ofizialak egiteak lanaldia murrizteko eskubidea ekar dezake; murrizketa hori lanaldiaren heren batekoa izango da gehienez eta lansariaren atal guztien beherapen proportzionala ekarriko du bere baitan. Garatzeko bidean dauden herrialdeetan eginkizunen bat egiteko eskatzen bada baimena, eta beti ere gobernuz kanpoko erakundeen babespean bada, baimenaren iraupena, metatuta hartuta, ezin izango da urtebetetik gorakoa izan bost urtetik behin, eta gutxienerako aldia hiru hilabetekoa izango da.

- Administrazio eta erakunde publikoetako kidegoetara eta eskaletara sartzeko deialdietan baimena emango da ezarritako hautatze probetako ariketak egiteko. Baimen hori probetan parte hartzeko behar adina denborarako emango da.
- Baimena emango da zigor askatasun-gabetzailearen bat betetzen ari den odol-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideren bati bisita egiteko, behar beste denborarako eman ere, baldin eta bisitak lanorduetatik kanpo egiterik ez badago.
- Baimena, dena delako modukoa izanik ere, laneko beharren arabera emango da. Ebazpena ezezkoa bada, horren arrazoiak eman beharko dira.
- Baimen hori hartzeko eskubidea daukan aldi baterako langileak gutxienez urtebeteko zerbitzaldi pilatua izan beharko du administrazioan, eta indarrean dagoen ikasturtean gutxienez 6 hilabete izan beharko ditu pilatuta. Horretarako, ikasturte baterako egiten den kontratua izanez gero, bigarren baldintza betetzen dela ulertuko da.

Lizentzia guztiak eskatzeko eskabide orriak www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila daude eskuragarri: Lan-arloak ➡ Langileak ➡ Kudeaketa-irakasle ez diren langileak ➡ Lizentziak eta baimenak ➡ Hezkuntza Berezia

5. ESZEDENTZIA ETA MURRIZKETAK

5.1. BORONDATEZKOAK

5.1.1. SEME-ALABAK ZAINTZEA 3 URTERA ARTEKOA

- Edozein unetan eskatu ahalko da, adingabeak 3 urte bete arte.
- Nahi beste aldiz eten eta eskatu ahalko da.
- Oro har horiek ematea eragin duen arrazoa amaitu arte luzatuko da, arrazoa desagertu baino lehen amaitu ahal izango dira urtarrilaren 31n edo abuztuaren 31n soilik. Salbuespenez, eta modu frogagarrian egiaztatutako aparteko egoeretan, Administrazioak baimena eman ahal izango du aurretik aipatutako datez bestelakoetan amaitzeko.
- Egoera horretan igarotzen den denbora antzinasunerako zein erretirorako konputagarria da.
- Gurasoak, biak lanean dabiltzanean, bietako bat bakarrik baliatu ahal izango da eskubide horretaz.
- Egoera horretan egoten den bitartean ezin da ordaindutako kontraturik izan.

Ordezkoak:

- Edozein unetan eskatu ahalko da, adingabeak 3 urte bete arte eskaintako ordezkapenari uko egiteko aukera. Aldi baterako lan etetearen egoera hauetan sartu direnek egoera horretan egongo ez bailiren deituak izateko eskubidea izaten jarraituko dute eta ordezkapenak egiteko eskaintzen zaien aldia emandako zerbitzu-denboratzat konputatuko zaie.
- Egoera horretan ematen den denbora ez da kontuan hartzen antzinasunerako ezta Gizarte Segurantzarako ere.
- Denbora hau barematzeko kontuan hartuko da.
- Onuradunak, gutxienez 20 egun lehenago adierazi beharko du idatziz lan egiteko prest dagoela, adingabeak 3 urte betetzen dituenean edo berak etetea erabakitzen duenean.
- Gurasoetako batek bakarrik eskatu ahalko du.
- Eskabide orria bete behar da eta Lurralde Ordezkaritzan entregatu.

5.1.2. ODOL-AHAIDETASUNeko EDO EZKONTZA-AHAIDETASUNeko BIGARREN MAILARA ARTEKO SENIDEAK ZAINTEKO

Langileek gehienez urte bateko eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko, senideren bat, adinagatik, istripuren bat izateagatik edo gaitzak jota egoteagatik, ezin bada bere kabuz moldatu eta ordaindutako jarduerarik egiten ez badu.

Denboraldi horretan, langileak lanpostua gordetzeko eskubidea izango du, eta epe hori ere kontuan hartuko zaio antzinasunaren ondorioetarako. Era berean, prestakuntza ikastaroetan parte-hartzeko eskubidea izango du.

5.1.3. BORONDATEZKOA

Urtebeteko antzinasuna bete duten langileek borondatezko eszedentzia eska dezakete, idatziz; eta aurreko lau urtetan eszedentziarik hartu ez badute, gutxienez urtebetekoa eta gehienez bost urtekoa izango den eszedentzia emango zaie.

5.1.4. BEREZIA

Enplegua banatzeko neurrien barruan eszedentzia hartzeko aukera dago. Enpresan gutxienez bi urteko antzinasuna duen langileari borondatezko eszedentzia berezia onartuko zaio, eta lan egiten duen berritzegune berean lanpostua gordeko zaio, gutxienez sei hilabeteko eta gehienez urtebetekoa izango da. Eskubide hori ezin izango du langile berak gauzatu harik eta aurreko eszedentziatik bi urte igaro arte.

5.2. NAHITAEZKOAK

Nahitaezko eszedentziak lanpostua gordetzeko eta antzinasuna zenbatzeko eskubidea emango du. Honako kasuetan emango da, Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzari idatziz horren berri eman ondoren:

- Kargu publikoren bat betetzeko izendatua edo hautatua izateagatik, langilea lanera joan ezin denean.
- Langileak herrialdean edota lurralde-eremu handiago batean eginkizun sindikalak bete behar baditu, ordezkari kargua duen bitartean.
- Langileak askatasuna galdu duenean – Prebentziozko atxilotzea eta behin behineko espetxeratzea barne hartuta-, zigortzeko epai irmorik jasotzen ez duen bitartean.

5.3. URTE SABATIKOA

Baimenaren iraupenari dagokionez, urte sabatikoa bostgarren urtean har daitekeen arren, partzialki ordaindutako baimenak bost urte irauten ditu. Bost urte hauek, irakaskuntzaren arloko antolakuntza eta plangintzarekin bat etorritz, bost ikasturte oso dira.

Partzialki ordaindutako baimena jaso ahal izateko lau urtez jardun beharko da lanaldi osoan eta ordainsariaren zati bat baino ez da jasoko (%84a) eta bostgarren urtean baimen urtea izango da soldataren %84arekin ere.

5.4. JARDUN MURRIZKETAK

5.4.1. ADINGABEKOAK ZAINZEKO MURRIZKETA

Ardurapean 12 urtetik beherako adingabekoren bat izatean, lanaldi arrunta murrizteko baimena eskatu ahal da (nahi besteetan eskatu daiteke). Murrizketa hori lanegunaren herenekoa izango da gutxienez edo erdikoa gehienez, beti ere jardunaldiari begira. Ordutegia, murrizketa eskatu duenak erabakitzen du, baina beti jarraia izan behar da. Etengabeko jardunaldia dagoenean jardunaldiaren murrizketa ere proportzionala izan beharko da. Lansariaren atal guztien heineko beherapena ekarriko du horrek. Bularra edo biberioa emateko ordubeteko etenaldia egiteko eskubidearekin bateragarria izango da.

Lanaldi- murrizketak horiek ematea eragin duen arrazoia amaitu arte luzatuko dira, eragin zituen arrazoia desagertu baino lehen amaitu ahal izango da urtarrilaren 31n edo abuztuaren 31n soilik. Salbuespenez, eta modu frogagarrian egiztatutako aparteko egoeretan, Administrazioak baimena eman ahal izango du aurretik aipatutako dataz bestelakoetan amaitzeko.

5.4.2. ODOL-AHAIDETASUNEKO EDO EZKONTZA-AHAIDETASUNEKO BIGARREN MAILARA ARTEKO SENIDEAK ZAINZEKO MURRIZKETA

Langileek lanaldi arrunta murrizteko baimena eskatu ahal izango dute odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko. Murrizketa hau senideren bat, adinagatik, istripuren bat izateagatik edo gaitzak jota egoteagatik, ezin bada bere kabuz moldatu eskatu daiteke. Murrizketa hori lanegunaren herenekoa izango da gutxienez edo erdikoa gehienez, beti ere jardunaldiari begira.

5.4.3. BORONDATEZKOAK

Enplegua banatzeko neurrien barruan aukera dago lanaldia borondatez murrizteko. Langileak lanegunaren herena edo erdia gutxitzeko eskatu ahal du, lansariak ere hein berean murriztuko zaizkio, hirurtekoak barne hartuta.

Lanaldia murrizten bada, egoera hori eta beste edozein lan jarduera burutzea, bai ordainduta zein ordaindu gabe, bateraezinak dira, gutxitu den ordutegiaren barruan bada. Eskaera urtebeterako izango da gutxienez. Baimena eten ondoren, hiru urte igaro beharko dira berriz ere eskatu ahal izateko.

6. ORDAINSARIAK

6.1. LANSARIAK

2022	Soldata					Antzinasuna		Lan Arropa	
	Hilean	Urtean	Aparteko ordainsaria	Urtean	Guztira	Hilean	Urtean	Hilean	Urtean
Hezkuntza Laguntzako espezialistak	2.083,04€	24.0996,48€	2.083,04€	4.166,08€	29.162,61 €	33,82€	473,46€	6,71€	80,57€
Okupazio Terapeutak	2.567,43€	30.809,16€	2.567,43€	5.134,86€	35.944,08€	44,41€	621,74	--	--
Fisioterapeutak	2.567,43€	30.809,16€	2.567,43€	5.134,86€	35.944,08€	44,41€	621,74	--	--
Zeinu Hizkuntzako Interpreteak	2.083,04€	24.0996,48€	2.083,04€	4.166,08€	29.162,61€	33,82€	473,46€	6,71€	80,57€
Traskriptoreak	2.083,04€	24.0996,48€	2.083,04€	4.166,08€	29.162,61€	33,82€	473,46€	6,71€	80,57€
Gizarte Langileak	2.567,43€	30.809,16€	2.567,43€	5.134,86€	35.944,08€	44,41€	621,74	--	--

1. 6.2. HIRURTEKOAK

Lanean 3 urte (1.080 egun) osatu ondoren ordainduko da hirurteko antzinasuna. Langilea enpresan sartzen den lehenengo eguna izango da antzinasuna zenbatzeko hartuko den hasierako eguna, eta antzinasunerako kontuan hartzekoak ez diren epealdiak hortik kenduko dira. Lehenengo hirurtekoa kobratu ahal izateko idatziz eskatu behar da, ondorengoak automatikoki kobratzen dira baina komenigarria da adi ibiltzea. Erreklamatzeko urtebeteko epea dago.

6.3. AURRERAKINAK

Jardunean dauden langileek, hileko soldata garbiaren %100erainoko aurrerakinak, interesik gabe, jasotzeko eskubidea izango du, kontratu harremana hilaren azkena baino lehenago bukatzen ez bada. Aurrerakin hori eskatu den hileko soldatan eman beharko da.

6.4.- IRPFa 2022an

IRPF kenketa aldatu nahi izanez gero, EIZUren bidez egin beharko da.

2022

**ATXIKIPEN EHUNEKOEN
TAULA OROKORRA**

Tablas % de retención de IRPF

**BURUJABETZA
BIZITZA DUINERAKO**
Vamos hacia el cambio

LAB



<http://www.lab.eus/afiliatu>

URTEKO SARRERAK (eurotan) Ingresos anuales (euros)		ONDORENGOEN KOPURUA Número de descendientes						
GUTXIENEZ Desde	GEHIENEZ Hasta	0	1	2	3	4	5	GEHIAGO Más
0,00	14.000,00	0	0	0	0	0	0	0
14.000,01	14.790,00	5	3	0	0	0	0	0
14.790,01	15.530,00	6	4	2	0	0	0	0
15.530,01	16.460,00	7	5	3	0	0	0	0
16.460,01	17.700,00	8	6	4	0	0	0	0
17.700,01	19.150,00	9	7	5	2	0	0	0
19.150,00	20.660,00	10	8	7	3	0	0	0
20.660,01	22.020,00	11	10	8	5	1	0	0
22.020,01	23.540,00	12	11	9	6	3	0	0
23.540,01	25.360,00	13	12	10	8	4	1	0
25.360,01	27.540,00	14	13	11	9	6	2	0
27.540,01	30.140,00	15	14	13	10	8	4	0
30.140,01	33.230,00	16	15	14	12	9	6	0
33.230,01	37.460,00	17	16	15	13	11	8	0
37.460,01	40.700,00	18	17	16	15	13	10	3
40.700,01	43.840,00	19	18	17	16	14	12	5
43.840,01	47.530,00	20	19	18	17	15	13	7
47.530,01	51.420,00	21	20	20	18	17	15	9
51.420,01	55.650,00	22	21	21	19	18	16	11
55.650,01	59.140,00	23	22	22	21	19	18	12
59.140,01	63.080,00	24	23	23	22	21	19	14
63.080,01	67.570,00	25	25	24	23	22	20	16
67.570,01	72.700,00	26	26	25	24	23	22	17
72.700,01	78.160,00	27	27	26	25	24	23	19
78.160,01	83.030,00	28	28	27	26	25	24	20
83.030,01	88.560,00	29	29	28	27	27	25	22
88.560,01	94.660,00	30	30	29	29	28	27	23
94.660,01	101.910,00	31	31	30	30	29	28	25
101.910,01	109.880,00	32	32	31	31	30	29	26
109.880,01	119.000,00	33	33	32	32	31	30	28
119.000,01	129.790,00	34	34	33	33	32	32	29
129.790,01	142.100,00	35	35	34	34	33	33	31
142.100,01	155.630,00	36	36	36	35	35	34	32
155.630,01	172.010,00	37	37	37	36	36	35	33
172.010,01	192.250,00	38	38	38	37	37	36	35
192.250,01	213.160,00	39	39	39	38	38	37	36
213.160,01	hortik gora / en adelante	40	40	40	39	39	39	37

Aniztasun funtzionala dutenen gutxipenen taula orokorra

Langile aktibo ez induei abixipen portzentajeen taula orokorra aplikatuko zaie. Langileak duen ezintasun egoeraren eta kulatoratuko etekinen arabera, dagokion abixipen orokorren taulako portzentajearen hurrengo taulan adierazitako portzentajea kenduko zaio.

URTEKO SARRERAK (eurotan) Ingresos anuales (euros)		DESGAITASUN-GRADUA Grado de discapacidad	
GUTXIENEZ Desde	GEHIENEZ Hasta	4. A) ATALA Apartado 4. a)	4. B) ATALA ETA 4. C) ATALA Apartado 4. b) y Apartado 4. c)
0,01	23.540,00	9	12
23.540,01	30.140,00	7	12
30.140,01	43.840,00	6	10
43.840,01	51.420,00	5	10
51.420,01	72.700,00	4	8
72.700,01	109.880,00	3	6
109.880,01	172.010,00	2	5
172.010,01	hortik gora / en adelante	1	3

A egoera: Desgaitasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65etik beherakoa duten langile aktiboak.
B egoera: Desgaitasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten langile aktiboak, baldin eta mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da 1999ko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, minusbalotasun maila aitortu, ezarri eta kalifika-tzeko prozedurari buruzkoak, II. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenean.

C egoera: Desgaitasun maila 100eko 65 edo handiagoa duten langile aktiboak.
 Abixipen portzentajea gutxitu nahi duten langile aktibo desgaituek ordaintzaleari aurkeztu beharko diote Gizarteintza Departamentuak edo beste organo eskudun batek egindako ziurtagiri bat, gutxipen horretarako eskubidea lortzeko eskatutako beharrikunak betetzen dituela frogatzeko.

7. GIZARTE FUNTSA

Gizarte funtsa 20.000 euroz osatuta dago eta hurrengo kontzeptuengatik eskatu daitezke:

- Laguntza protesikoak ikusmena: kristalak berritzea eta ikusmena zuzentzeko lentillak (mantentze likidoak ez dira sartzen).
- Laguntza protesikoa entzumena: audifonoak.
- Laguntza protesikoak ortopedia: plantillak, gerrikoak eta konprimitze-galtzerdiak.
- Laguntza odontologikoak: zorroak edo endodontziak.
- Tratamendu eta ebakuntza medikuetatik eratorritako laguntza protesikoak, osasun sistema publikoan barneratuak ez daudenak.
- Tratamenduentzako laguntzak: tratamendu psikologikoak, psikiatrikoak eta foniatria.
- Fisioterapia, osteopatia eta errehabilitazio tratamenduentzako laguntza.

Urtero 20.000 € banatuko dira.

Eskatzaile bakoitzak jasoko du gastuen zenbateko osoa, betiere batuketa hori pertsona bakoitzeko 100€ baino txikiagoa ez bada eta 1.000 € gehienez jasoko dira. Langile batek Gizarte Funtساتik hainbat deialditan jaso duena batuz 5.000€ kobratzen ditunean, ezin izango du parte hartu hurrengo bi deialdietan.

Eskaera guztiak batuta, 20.000 € gainditzen badira, laguntzak proportzionalki banatuko dira.

Laguntza jasotzeko eskubidea finkoek, bakantedunek eta aldi baterako langileek (gutxienez urte naturalean 75 egun lan eginak izan beharko dituzte) izango dute.

7.1. ESKABIDEA ETA DOKUMENTAZIOA

1. Interesdunek eredu ofizialaren araberako eskabidea aurkeztu behar dute behar bezala beteta. Hezigunearen bitartez eskaerak egingo dira.

2. Laguntza modalitate bakoitzean eskatzen den dokumentazio espezifikoa jatorrizkoak aurkeztu behar dira.

Dokumentazioa:

- Laguntza protesikoa ikusmena: sendagile eta/edo optikariaren egiaztatzea pertsonaren patologia, dioptrien kopurua eta abar adierazten duena.

- Laguntza protesikoa entzumena, ortopedia , tratamendu eta ebakuntza medikuetatik eratorritako laguntza protesikoak, tratamenduentzako laguntza, fisioterapia, osteopatia eta errehabilitazio tratamenduentzako laguntza: Hezkuntza Saileko Mediku Zerbitzuak alde aurretik egindako aldeko txostena; zerbitzu horretan Osakidetzako edo Mutuako txostena aurkeztu behar da zeinetatik ondorioztatzen den protesia eskuratzearen beharra.

- Laguntza odontologikoak: ez da eskatuko ez dentistaren ez Hezkuntza Saileko Hezkuntza Saileko Mediku Zerbitzuak alde aurretik egindako aldeko txostenik.

Otsaila-martxoan irekitzen da deialdia eskaera egiteko.

Eskabide orria eta dokumentazioa lurralde ordezkaritzetan aurkeztu beharko da.

Gizarte funtsaren inguruko informazioa eskuratzeko eta aurkeztu beharreko dokumentazioa www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila daude eskuragarri:
Lan-arloak ⇒ *Langileak* ⇒ *Kudeaketa-irakasle ez diren langileak* ⇒ *Giza eta prestakuntza fondoak*

8. FORMAZIO FUNTSA

Eskaera otsaila-martxora aldera izaten da eta Heziketa Bereziarekin zerikusia duten egindako ikastaroak ordaintzeko diru laguntzak dira.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide orria.
- Ikastaroa ematen duen entitateak egindako egiaztagiri/ ordainagiria non hurrengo datuak agertzen diren: ikaslearen izena, ikastaroaren izena, iraupena eta balioa, beti ere urteari dagokiolarik, halaber ikastaro horiei dagozkien urteko banketxeko abonu-agiria. Agiri guztiak jatorrizkoak izan behar dira.

Hezigunearen bitartez egingo dira eskabideak.

Formazio-funtsari buruzko informazioa www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila dago eskuragarri.

9. IRALE ETA PREST GARA

9.1. IRALE

Hezkuntza Bereziko hezitzaileek parte hartu ahal izango dute Hezkuntza Sailaren IRALE programetan. Langile finkoek eta ikasturte osorako kontratua duten aldi baterako langileek parte hartu ahal dute.

Prestakuntza eskaintza, modalitateak, parte hartzeko baldintzak eta esandako programetako parte hartzaile kupoa ohiko prozeduraren arabera ezarriko dira. Ikastaro eskabideei, onartze irizpideei eta jarraipenari dagokionez, IRALEko funtzionamendu arauak aplikatuko dira, dagokion informazio liburuxkan adierazitakoarekin bat eginik.

Eskaera apirila-maiatza inguruan egiten da.

Interneteko helbide honetan eskura izango duzue informazioa gehiago:
www.euskadi.eus/hezkuntza-euskera.

9.2. PREST GARA

Hezkuntza Bereziko hezitzaileek parte hartu ahal izango dute Hezkuntza Sailaren Prest-Gara programetan. Langile finkoek eta ikasturte osorako kontratua duten aldi baterako langileek hartu ahalko dute parte.

Eskaera maiatza aldera izaten da.

Eskaera Hezigunea atarian, "formakuntza-prestakuntza" atalean egiten da.

10. FUNTZIOAK

1. Autonomia pertsonaleko programak diseinatu eta burutzea eta, honekin lotuta, hezkuntza-premia bereziak dituen ikaslea zaintzea, txukuntzea, garbitzea eta janztea, behar baldin badu, ezarritako orientabideei jarraituz eta arretaz arduratzen diren irakasleek begiratuta (tutorea, aholkularia, irakasle tutorea...).
2. Hezkuntza-premia bereziak dituen ikaslearen elikadura ohiturekin zerikusia duten autonomia pertsonaleko programak diseinatu eta burutzea, ezarritako orientabideei jarraituz eta arretaz arduratzen diren irakasleek begiratuta (tutorea, aholkularia, irakasle tutorea...).
3. Behar duen ikasleari batetik bestera joan behar duenean laguntzea bere eskolako ekintza garatu ahal izateko.
4. Zerbitzua eskatzen duen ikasleari arreta ematen, begiratzen eta biziki parte hartzea, atsedendietan; gainontzeko ikasleekin harreman egokia izan dezala lortzen saiatu beharko da.
5. Laguntza- eta aholkularitza- profesionalekin (logopeda, fisioterapeuta, IBTren irakasle ibiltaria, TMren aholkularia...) lankidetzan jardutea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek egin behar dituzten jardueretan, eta bertaratzea eskatzen den horietan.
6. Bere eskumenaren eremuan, irakasle tutorearekin parte hartzea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei dagozkien Norbanako Curriculum Egokitzapenaren jarraipena eta arretako ikasleek duten eboluzioaren errazte aldera.
7. Bere eskumenekoak diren alderdietan, irakasle tutoreekin, irakasle bereziarekin eta, hala badagokio, TMrekin koordinazioan jardutea, autonomia pertsonaleko programei dagokienez, Norbanako Curriculum Egokitzapenaren jarraipena eta arretako ikasleek duten eboluzioarena errazte aldera.
8. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen jokabide-eta komunikazio-ohiturekin zerikusia duten autonomia sozialeko programak diseinatu eta burutzen parte-hartzea, ezarritako orientabideei jarraituz eta irakasle arduradunek begiratuta.
9. Bere eskumenekoak diren alderdien garapenari buruzko informazioa ematea, autonomia sozialeko dagokienez, Norbanako Curriculum Egokitzapenaren jarraipena eta arretako ikasleek duten eboluzioarena errazte aldera.
10. Laguntza-profesional osagarriekin (logopeda, fisioterapeuta, IBTren irakasle ibiltaria, okupazio terapeuta...) lankidetzan jardutea, zertarako eta hezkuntza-premia bereziak

dituzten ikasleei curriculumera sartzeko behar dituzten materialak egokitzen eta erabiltzen laguntzeko eta laguntza teknikoak eskaintzeko.

11. Bere eskumenekoak diren alderdien garapenari buruzko informazioa ematea; honela, errazagoa izango da Norbanako Curriculum Egokitzapenaren jarraipena eta programazioa eta arretako ikasleek duten eboluzioaren jarraipena egitea, materialak egokitzeari eta laguntza teknikoak eskaintzeari dagokionez.

12. Dagozkion ardurak aplikatzea, ezarritako protokoloari jarraituz; dena dela, funtzio hauek ikastetxeko gainontzeko profesionalekin batera garatuko dira.

13. Osagarriko laguntza-zerbitzuekin parte hartu eta lankidetzan jardutea, mugitzeko trebetasunak garatzeko jardueretan.

14. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arreta, manipulazioa, motibazioa eta kontrola zentratzen parte hartu eta lankidetzan jardutea, mugitzeko trebetasunak garatzeko jardueretan eta beren jokoan.

15. Bere eskumenekoak diren alderdien garapenari buruzko informazioa ematea, mugitzeko trebetasunei dagokienez, Norberaren Curriculum Egokitzapenaren ondoriozko banakako programazioaren jarraipena eta arretako ikasleek duten eboluzioarena errazte aldera.

16. Lehen aipatutako programei buruzko bilera teknikoetan eta ebaluatzeko bileretan parte hartzea.

17. Bere eskumeneko txosten teknikoak egitea.

11. ORDEZKAPENAK

Aurrez ikusiz gero, zerrendetan dauden izangaiekin ordezkapenetarako langile-beharrak ezin izango direla bete edota LEP baten aurretik; zerrenden irekiera egunkari ezberdinetan iragarriko da. Igandeetan argitaratzen dira iragarki hauek. Hezkuntzako web gunean ere argitaratzen dira.

LABen web guneko heziketa bereziko orrian ere horren berri emango da: <https://irakaskuntza.lab.eus/heziketa-berezia/>.

Hautagaien merituak barematzea, zerrendako baremazio-irizpideak ezarritako atalaren arabera izango da.

Zerrendetan dauden hautagaiak ez badira nahikoak unean uneko izan daitezkeen ordezeko premiak asetzeko, zerrendak irekita uzteko aukera egongo da, beste hautagai batzuk sar daitezten.

Zerrenda irekiera horiek honela antolatuko dira: eskaerak eta dokumentazioa behar bezala aurkeztu deneko ordena.

Zerrendak urtero barematuko dira, hautagai guztiak aintzat hartuz.

MOMENTU HONETAN ZERRENDAK ZABALIK DAUDE. Irakaslegunearen bitartez "zerrenda irekiak" atalean izena emateko aukera dago.

Hezkuntza saileko web orrian gida dago eta dokumentazioa modu telematikoan ere aurkeztu ahal da.

11.1. ZERRENDEN IREKIERAN BEHARREZKOAK DIREN AGIRIAK

- Titulazio akademikoa: Gizarteratzeko edo Haur Hezkuntza Goi-mailako teknikaria, edo horien baliokideak.
- Euskara titulazioa: HLEA, HE2, EGA , C1 edo baliokideak
- Ordezkapenetarako izangaien zinpeko aitortpena.

11.2. ZERRENDAKO BAREMAZIO IRIZPIDEAK

- Lan esperientzia:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden hezkuntza bereziko laneko kolektiboetan zerbitzuak eman izana: puntu 1 hilabete bakoitzeko, puntuazio-mugarik gabe.

Ikastetxe kontzertatu edo pribatu batzuetan zerbitzuak eman izana: 0'5 puntu hilabete bakoitzeko, puntuazio-mugarik gabe. Atal honetan hezkuntza bereziaren eremuan emandako zerbitzuak baino ez dira kontuan hartuko, langile hezitzaile kategoria honi dagokion lan-legepeko kontratu berdinarekin eta dagozkien funtzio analogoak beteaz ere.

Ikastetxe pribatuetan emandako zerbitzuak ondorengo agiriak aurkeztuz egiaztatuko dira: ikastetxeko zuzendaritzak emandako ziurtagiria, zerbitzuaren iraunaldia jasota, kontratuaren fotokopia konpultsatua eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandako ziurtagiria(enpresaren) izena eta alta aldiak jasoko dituen.

Lanaldi partzialeko erregimenean emandako zerbitzuek lanaldi osoko erregimenean emandako zerbitzuen puntuazio bera izango dute.

- Puntuazioko berdinketak desegiteko irizpideak:

Izangaien guztizko puntuazioetan berdinketarik gertatuz gero, ondorengo hauei jaramon eginez ebatziko dira, hurrenez-hurren: zerbitzaldi luzeagoa ikastetxe publikoetan (egunetan adierazita), zerbitzaldi luzeagoa ikastetxe pribatuetan (egunetan adierazita).

Berdinketak irauten badu, abizenen eta izenen alfabeto hurrenkera erabiliko da, eta urteroko zozketa baten bidez erabakiko da zein letratik hasi.

Behin-behineko zerrendak Hezkuntzako Web orrian eta Lurralde Ordezkaritzetako (Delegazioak) tauletan jarriko dira. Honekin batera erreklamatzeko epeak argitaratuko dira. Epe hauek pasa ondoren behin betiko zerrendak argitaratuko dira. Behin betiko zerrenda hauei ere gora joateko helegitea sartu ahal izango zaie, Pertsonal eta Zerbitzuen sailburuordearen aurrean. Hiru hilabeteetan ez bada erantzuna jasotzen edo ezezkoa bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa sartzeko EAEko Auzitegi Nagusian.

11.3. FUNTZIONAMENDUA ETA SALBUESPENAK

11.3.1. ORDEZKAPENETARAKO ZERRENDEN FUNTZIONAMENDUA

Hezkuntza Sailak hautagaien komunikazio guztiak, informazioa eta aplikazioetarako sarbideak multzokatuko dituen plataforma ORDEZKAGUNEA da.

Hezkuntza Sailak Hezitzaileen plaza bat bete behar duenean, Ordezlagunea aplikazioaren bidez eskainiko du. Oro har, kontratua hasi aurreko laneguneko 12:30ak arte ikastetxeko zuzendaritzek jakinarazitako ordezkapen guztiak sartuko dira

Ordezlagunean. Aplikazio horrek kategoria bakoitzeko hautagaien zerrenda-ordena hartuko du kontuan, eta honako esleipen mota hauen arabera esleituko da plaza:

1) Borondatezko esleipena: lanpostua borondatez eskatu duen eta zerrendetan hobekien kokatuta dagoen hautagaiari esleituko zaio plaza. Esleipen horretan, birbaremazioan aukeratutako lurraldeko eta lanaldiko plazak aukeratu ahal izango dira, baita ohiko bizilekutik 50 km baino urrunago dauden plazak ere, nahitaezko esleipenaren bidez plaza horien esleipendun ez izatea aukeratu bada ere.

2) Nahitaezko esleipena: hautagairik ez badago eskainitako lanposturen bat eskatu duena edo horietako bat ezin izan bazaio eskatzaileari esleitu eskatutako baldintzak betetzen ez dituelako, nahitaez esleituko da plaza, zerrendetan egoera okerreanean dagoenetik hasita, betiere lanaldiei eta lurraldeei dagokienez dituen lehentasunak errespetatuz eta bere bizilekutik 50 km baino gehiagora dauden lanaldi partzialei uko egiteko edo ez egiteko aukera errespetatuz.

Bi esleipen-motetan, hautagaiak lanposturako eskatzen den hizkuntza-eskakizuna betetzen duela egiaztatuko da.

Hautagai bat irakasleen zerrendetan eta hezitzaileen zerrendetan okerren kokatzen dena bada eta plaza bat nahitaez esleitu behar bada, hezitzaileen plaza esleituko zaio.

Era berean, hautagai bat hezitzaileen zerrenda batean edo gehiagotan kokapen okerrean duen pertsona bada, kategoria ordena honen arabera esleituko da plaza: hezkuntza laguntzako espezialista, zeinu-hizkuntza interpretea, fisioterapeuta, okupazio-terapeuta, gizarte-langilea, transkribatzailea eta material-egokitzailea.

Ez dira nahitaez esleituko ospitaleko, etxeko hezkuntza arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarrirako lurralde zentroetako plazak, txanda-kontratuak (lanaldi partzialekoak badira) eta ohiko bizilekutik 50 km baino urrunago dauden lanaldi partzialeko plazak, baldin eta aukera hori egin badute. Aukera hori komuna izango da hautagaia barneratuta dagoen hezitzaileen zerrenda guztietarako. Ohiko bizilekutik 50 km baino urrunago dauden lanaldi partzialak nahi dituzten ala ez erabakitzeko aukera hori ikasturtean zehar aldatu ahal izango da.

Txanda-kontratuei dagokienez, oro har, kontratua hasi baino 7 egun natural lehenago eskainiko dira.

Hautagaiek egin beharreko izapideak:

Hautagaia Ordezlagunean sartzten den lehen aldian, nahitaez baliozkotu beharko du bere ohiko bizilekua, ohiko bizilekutik 50 km baino urrunago dauden lanaldi partzialeko

plazei uko egitea edo ez erabaki beharko du (aukera hori Hezkuntza Bereziko kategorია guztietarako komuna izango da), eta telefono mugikor bat eta posta elektronikoko bat izan beharko du. Baliozkotze hori gabe, ezingo du eskabiderik egin.

Hautagaiak bere lan-egoera aldatu ahal izango du Ordeztagunen, 9:30etatik 13:00etara.

Hautagaia indarrean dagoen kontratu batekin lanean badago:

Hautagaiak kontratu bat indarrean badu, baina jakin badaki bere kontratua egun horretan bertan amaitzen dela eta Ordeztagunen parte hartu nahi duela, hurrengo egunean lan egiteko moduan egongo baita, bere lan-egoera lanerako prest izatera aldatu ahal izango du. Aitzitik, hautagaiak kontratu bat indarrean badu baina jakin badaki bere kontratua egun horretan bertan amaitzen dela, eta alegatu nahi badu justifikatutako uko egitea duela ezein lanposturen esleipendun ez izateko, bere lan-egoera justifikatu gabeko uko egite egoerara aldatu ahal izango du, eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du bost egun balioduneko epean. Uko egiteko arrazoi justifikatuak Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitakoak izango dira, eta behar bezala justifikatu beharko dira dagokion justifikazio-dokumentazioaren bidez (egitatea badela egiaztatuz).

Hautagaia lan egiteko moduan badago:

Hautagaia lan egiteko moduan badago eta inolako plazaren esleipendun ez izateko justifikatutako uko egitea duela alegatu nahi badu, bere lan-egoera aldatu ahal izango du justifikatu gabeko uko egitera, eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du bost egun balioduneko epean. Kasu horietan, eta salbuespen gisa, justifikatutako uko egite arrazoiak 13:00ak baino geroago gertatzen bada eta hautagaiari plaza bat esleitzen bazaio, uko egin ahal izango du, hori behar bezala justifikatuz gero (13:00ak baino geroago gertatu dela) eta arrazoiak hitzarmen honetan ezarritako justifikatutako uko egiten artean sartzen bada.

Justifikatutako uko egite arrazoiak Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitakoak izango dira, eta behar bezala justifikatu beharko dira dagokion justifikazio-dokumentazioaren bidez (egitatea badela egiaztatuz).

Hautagaia justifikatutako uko egite lan-egoeran badago:

Hautagaia justifikatutako uko egite lan-egoeran badago eta lan egiteko moduan egoerara igaro nahi badu, bere lan-egoera aldatu ahal izango du, dokumentazio justifikatzailea Ordezkaritzari uko egitea eragin zuen gertakaria amaitu dela jakinarazteko unean (gertakaria amaitu dela egiaztatuz).

Ordezlagunean plazak eskatzeari dagokionez, hautagaiak eskaera telematikoa egin beharko dute aplikaziora sartuz eta bere lehentasunak, oro har, 13:30etik 15:30era bitarteko artean aurkeztuz, eta ikastetxeak bermatuko die bi ordu horietan jarraian jantokia egiten duten langileei eskaera egin ahal izatea, baldin eta egun horretan bertan kontratua amaitzen badute Hezkuntza Laguntzako espezialistaren kategorian.

Halaber, hautagaiaren ardura izango da, oro har, 15:35etik aurrera argitaratzen den lanpostuen esleipena ezagutzeko aplikaziora egunero sartzea.

Hautagaiari hezitzaile plaza bat esleitu bazaio:

Hezitzaile baten esleipenduna izan bada (eta, ondorioz, Hezkuntza Bereziko kategorian horretan lanean ari bada), Ordezlagunean borondatez parte hartu ahal izango du irakasle gisa plaza bat lortzeko. Hala ere, ez da nahitaezko eskaerarik egingo hezitzaileen kategorian batean lanean dagoen bitartean. Hezitzaile gisa lanean egonik irakasle-plaza bat esleitzen bazaio, saileko ikastetxe publikoetan hezitzaile gisa hiru urteko lan-zerbitzurik egiaztatzen ez badu kanporaketarekin zigortuko da. Hezitzaile gisa lanean ari dela, hautagaiari irakasle-plaza bat esleitzen bazaio, esleipena egin eta hurrengo egunean irakasle-plazara joan beharko du, eta ordura arte lan egiten zuen ikastetxeari jakinarazi beharko dio amaitu dituela bere zerbitzuak.

Hautagaiari irakasle-plaza bat esleitu bazaio:

Irakasle-plaza baten esleipenduna izan bada (eta, ondorioz, irakasle-lanetan ari bada), Ordezlagunean parte hartu ahal izango duzu, borondatez, hezitzaile gisa plaza bat lortzeko. Hala ere, ez da nahitaezko eskaerarik egingo irakasle bezala lanean dagoen bitartean.

11.3.2. FUNTZIONAMENDU OROKORRAREKIKO SALBUESPENAK

- Ordezkapen bat amaitzen denetik bost ikastegunetara ordezkapen bera berriro suertatzen bada, nahiz eta beste hautagai batzuek puntu gehiago izan, ordezkapen hori bete duen izangaiak lehentasuna izango du ordezkapen hori betetzeko, egiteko moduan badago, betiere.
- Jardunaldi murrizketako ordezkapenen kasuan, aukera hori eskatu eta libre dagoen lehenengoari eskainiko zaio.
- Hala ere, jardunaldi murrizketarako aukera egin ez duen izangaiak eta lanaldi osoko ordezkapena betetzen ari denean, titularra itzultzen bada eta jardunaldi murrizketa eskatzen badu, ordezko honek lanaldi murrizketa hori ordezkatzen jarraitzeko aukera

izango du. Aitzitik, edozein arrazoigatik ordezkatzan ari den jardunaldi murriztuko lanaldi bat osora pasatzen denean, dagoen izangaiari eskainiko zaio ordezkapen hori egitea.

11.3.3. ORDEZKAPENEI UKO EGITEKO ARRAZOTIAK ZERRENDETATIK ERORI GABE

- Gizarte Segurantzaren autonomo gisa altan egotea. Autonomoen ziurtagiria eta lan-bizitza aurkeztu beharko da. Uko justifikatu horrek ez du meritatuko.
- Haurdunaldiko seigarren hilabetetik erditu arte. Egitate hori egiaztatzeke txostena aurkeztu beharko da. Uko justifikatu horrek ez du meritatuko.
- Administrazio batean izendapena izatea. Gizarte-segurantzaren alta eman izanaren ziurtagiriaren bidez edota izendapena beraren bidez frogatu beharko da. Uko justifikatu horrek ez du meritatuko.
- 2. maila arteko odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko senideak zaintzeko, gutxienez 15 egunetan eta gehienez 2 urtetan. Frogatu behar da istripu, gaixotasun edo aniztasun funtzional arrazoiengatik bere kasa ezingo dela moldatu. Uko justifikatu horrek ez du meritatuko. Gutxienez 15 eguneko epea igarotakoan, eta bi urte igaro arte, edozein unetan bere lan-egoera aldatu ahalko du, dokumentazio justifikatzailea Ordezkaritzari uko egitea eragin zuen gertakaria amaitu dela jakinarazteko unean. Behin bakarrik eskatu ahal izango du pertsona eta kausa beragatik. Bi urte horiek igaro ondoren ez badu bere lan-egoera aldatzen, zerrenda guztietatik kanpo geratuko dira. Bateriaezina izango da ordaindutako edozein jarduerarekin. Halaber, lan-bizitzaren bidez justifikatu beharko du ez dela beste enpresa batean aritu.
- Ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo semearen edo alabaren gaixotasun larriagatik edo ospitaleratzeagatik uko egitea era mugagabean justifikatua egongo da. Uko justifikatu horrek ez du meritatuko. Gaixotasunaren larritasuna mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, eta ziurtagiri horretan argi eta garbi adierazi beharko da gaixotasunaren data. Gaixorik dauden pertsonak ezkontidea, izatezko bikotekidea edo semea edo alaba badira, horren amaiera jakinarazi beharko da, hau da, lan-eskaintzari uko egiteko arrazoa ospitaleko edo medikuaren altarekin amaituko da. Egiaztatzen ez badu, zerrenda guztietatik kanpo geratuko da.

Bateriaezina izango da ordaindutako edozein jarduerarekin. Halaber, lan-bizitzaren bidez justifikatu beharko du ez dela beste enpresa batean aritu. Edozein unetan eskatu ahal izango dute zerrendetatik berriz deitzea, baina inola ere ezin izango dute berriro eskatu arrazoi beragatik deitua ez izatea; hau da, behin bakarrik eskatu ahal izango da, kausa eta pertsonako.

- 12 urtetik beherako seme-alaben kontsulta medikoetara joatea. Familia-liburuaren eta bertaratze- ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da. Uko justifikatu horrek ez du meritatuko.
- Genero indarkeriaren biktima izatearen kausa. Baldintza hori egiaztatu egin beharko da. Uko justifikatu horrek ez du merititzen.
- Gaixotasun edo lanekoa ez den istripugatik aldi baterako ezintasun egoeran (bajan) egotea.
- Lan istripu edo lan gaixotasunagatik.
- Amatasun lizentziagatik: haurdunaldiko 7. hilabetearen eta umearen 18. astearen barruan. Baita ere haurdunaldia arrisku egoeran baldin badago.
- Aitatasun lizentziagatik: umea(k) jaio eta hurrengo 18 asteren barruan.
- Badago Ordezkgunen esleitutako plazari uko egitea seme-alabaren bat hiru urte bete arte zaindu beharra izanez gero eta eskaini zaien estaldura-denbora egindako zerbitzuen denbora bezala zenbatuko zaie, zerrenda birbarematzeko eragin soiletarako. Horrela bada, etenaldi iragankorreko kasu hauetakoren batean daudenek beren lan-egoera Ordezkgunen lan egiteko modura aldatzeko eta zerbitzu eraginkorrak ematen hasteko eskubideari eutsiko diote. Ondorio berorietarako, postua hautatu ahal izango dute ikasturtearen hasieran lanpostuak esleitzen direnean.
- Ahaideen gaitz larri edo heriotzagatik. Uko egite honek honako mugak ditu: odolkidetasunezko edo berekidetasunezko 2. mailara arteko ahaideen gaitz larri edo heriotzagatik 2 egun; ezkontidea, bizilaguna eta seme-alabaren gaixotasunaren kasuan 5 egun. Bi eguneko epe hori hiru egunetaraino luzatuko da arrazoi hauek langilearen bizilekutik 150 km baino urrutiago gertatzen bada. Betiere, larritasuna medikuaren ziurtagiriaren bidez baietsi beharko da.
- Adopzioa, lehen 18 asteren barruan.
- Norberaren ezkontzagatik, ospakizuna izan baino 20 egun natural aurretik edo ondoren suertatuko balitz. Berdin bizikidetzaren egonkorraren kasuetan.
- Askatasuna galtzeagatik, zigor-epairik ez den bitartean.
- Hezkuntza Sailak, HAEE/IVAPek edo MECek edo beste autonomia erkidego batek antolatutako ikastaroetan parte hartzea.
- Hezkuntza sistemarekin loturiko bekaren bat edukitzea.

- Ikasketetan edo praktiketean aritzea, matrikularen bidez egiaztatu beharko da eta uko egitea ikasturte osora luzatu daiteke. Praktikak badira praktika aldiaren iraupenaren agiria aurkeztu beharko da.
- Irakaskuntzako beste esparruetan edo beste edozein lan-kontratu izatea. Berriro deitua izateko norberaren adostasuna agertu behar da dagokion lurralde ordezkartzan.
- Lanpostuaren zereginak betetzearekin bateraezina den minusbaliotasun fisikoren bat izateagatik.
- Lanaldi partzialetan lanpostua bizilekutik 50 km baino urrunago baldin badago. Kasu hauetan, ikasturtean zehar berriro deitu ahal izango zaio lanaldi partzialeko behar berriak eskaintzeko.
- Borondatez onartzekoak izango dira honako eskaintza hauek: Terapia Zentroetako premien aldi baterako estaldura (espezifikotasun funtzionala aintzat harturik), errelebo-kontratu bidezko estaldurak (lanaldi osora iristen ez diren lanaldi partzialeko txanda-kontratuen kasuan), eta, ohiko bizilekutik 50 km baino urrutiago dauden lanaldi partzialekoak. Txanda-kontratuak Ordeztagune bidez eskainiko dira, oro har, kontratua hasi baino 7 egun natural lehenago”.

Lan-istripua edo gaixotasun profesionala, gurasotasun, haurdunaldi arriskutsua edo arriskuko haurdunaldia kasuetan, etenaldi iragankorreko kasu hauetakoren batean daudenek beren lan-egoera Ordeztagunean lan egiteko modura aldatzeko eta zerbitzu eraginkorrak ematen hasteko eskubideari eutsiko diote. Ordezkapenaren iraunaldia emandako zerbitzu gisa kontatuko zaie birbaremazioari begira, baina ez antzinasunerako, ezta Gizarte Segurantzaren ondorioetarako ere. Kasu hauetan ere, ikasturte hasierako esleipen prozesuan parte hartu ahal izango da. Eskaintza bati arrazoirik gabe uko egiten zaionean, Lurralde Ordezkaritzak eskaintzaren, hari egindako ukoaren eta zerrendatik kanpo uztearen berrespena bidaliko dizkio interesdunari. Halaber, jakinaraziko zaio 10 eguneko epean zerrendatik kanpo uztearen aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izango duela.

1.3.4. ZERRENDATIK BAZTERTZEKO ARRAZOIAK

- Aurreko puntuetan adierazitako arrazoiez bestelakoengandik egindako ukoa.
- **Justifikatutako arrazoirik gabe lanaldi oso bati uko egitea**, hiru lurraldetan kategoria horretako zerrenda guztietan baja emango zaie, bai lanaldi osoetan, baita partzialetan ere; eta **justifikatutako arrazoirik gabe lanaldi partzial bati uko egiteak** hiru lurraldetan kategoria horretako zerrendetatik kanporatzea ekarriko du lanaldi partzialetan soilik.

- Deian proposatutako ordezkapena onartzen duen izangaiak, **lanera joan beharreko lehenengo egunean huts egiten badu**, onartutako lanpostuaren kategoriako zerrenda guztietatik kanporatua izango da, bai hiru lurraldeetatik baita lanaldi oso eta partzialetatik ere.
- **Indarrean kontratua duen izangaiak kontratu horri uko** egiten badio, indarrean dagoen kontratu horren kategoriako zerrenda guztietatik kanporatua izango da, hiru lurraldeetan, bai lanaldi osoetan baita partzialetan ere. Egoera hau emango da jardunaldi osoko edo partzialeko kontratu bati uko egitean.
- Izangaiak **bere ohiko zeregina betetzeko ageriko gaitasun eza**.
- **Diziplina-espedientearen ondorioz**: hutsegite larri edo oso larriren batengatik.

11.3.5. ZERRENDETATIK KANPORATZEAREN ONDORIOAK

Zerrendetatik kanporatuak izan diren pertsonak Hitzarmen Kolektiboari xedatutakoari jarraiki zerbitzuak emateko deituak izanda eskaintzari uko egin dietelako, uko egiteko arrazoiak ez dituztelako alegatzen eta egiaztatzen Hitzarmen Kolektiboan ezarritako epe eta baldintzetan, edo esleitutako lanpostuaz ez direlako jabetu, zerbitzuak emateari uzten dietelako edo kontratuari borondatez uko egiten dietelako, ezin izango dute parte hartu ikasturte horretako zerrenda-irekitzetan.

11.3.6. ZERRENDEN KUDEAKETA. ORDEZKAGUNEA

Hezkuntzak Sailak hautagaien eskura jarri dituen komunikazio guztiak , informazioa eta aplikazioetarako sarbideak multzoetako dituen plataforma berria ORDEZKAGUNEA da.

Ordezkapen bat bete behar denean, Ordezlagunea aplikazioaren bidez eskainiko da. Oro har, kontratua hasi aurretik 12:30ak arte ikastetxeko zuzendaritzek jakinarazitako ordezkapen guztiak sartuko dira Ordezlagunean.

Hezkuntzako atalean Ordezlaguneko gida eskuragarri dago.

Ordu-tarte interesgarriak:

1- Lanpostu hutsak betetzeko eguneroko eskaintza argitaratzeko ordua eta eskaerak egiteko ordutegia

Hautagaiak 13:30etik 15:30era egin ahal izango dituzte eskaerak.

2-Esleipena ikusteko ordutegia

Esleipena egunero 16:30 aurrera egongo da ikusgai Ordezlagunean.

3- Lan-egoera aldatzeko ordutegia

Sistemak 9:30etatik13:30etara bakarrik ahalbidetuko du zure lan egoera aldatzea.

Administrazioko e-mailak:

- Araba: arabaei@euskadi.eus
- Bizkaia:bizkaiaei@euskadi.eus
- Gipuzkoa:eigipuzkoa@euskadi.eus

11.3.7. ZERREDAKO HURRENKERA ETA POSIZIOAREN XEHETASUNAK

Ordeztagune atarian zerrendako hurrenkera eta posizioaren inguruko xehetasunak jakin daitezke. Hala nola, norberaren aurretik ordezkapen bat hartzeko zain dagoen hautagai kopurua.

Informazioa horrelako taula batean zehazten da:

Irakurketa argibideak:

Orden zenbakia: zerrenda horretan zein postua daukazu

Lanaldi-murrizketa Bai: jardun osoan eta murriztuan aurretik duzun hautagai kopurua.

Lanaldi-murrizketa Ez: jardun osoan aurretik duzun hautagai kopurua.

Lanaldi-murrizketa R (bakarrik): jardun murriztuan aurretik duzun hautagai kopurua.

Lanaldi-murrizketa Guztira: orotara aurretik duzun hautagai kopurua.

- Irakasteko Hizkuntz eskakizuna 0: PL0
- Irakasteko Hizkuntz eskakizuna 1: PL1
- Irakasteko Hizkuntz eskakizuna 2: PL2*

*Irakasteko 2. hizkuntz eskakizuna dutenek ere PL0 eta PL1eko ordezkapenak egin ditzakete.

11.4. BIRBAREMAZIOAK

Erreklamazioak egiteaz aparte ondorengo ataletan aldaketak egiteko aukera zabalduko da:

- Datu pertsonalak eta helbidea.
- Lurralde aukeraketa.

- Lanaldi motak:

S: lanaldi osoa eta lanaldi murriztua.

N: lanaldi osoa bakarrik.

R: lanaldi murriztua bakarrik.

- Eman beharreko hizkuntz eskakizuna (HE):

Une honetan egiaztatuta duen eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta

Kultura Sailaren datu-basean erregistratuta dagoen hizkuntz eskakizuna baino goragoko bat adierazten badu aurkeztu beharko du, lurralde ordezkarietara irakaskuntzan jardun nahi den hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko agiria.

- Zerrendako egoera aldatu: datorren ikasturteko dei guztiei uko egiteko, lanerako prest jartzeko aukera eta aldi baterako baja justifikatua jartzeko aukera.

- Zeinu hizkuntzaren ezagutza.

- Baremorako alegatutako merezimenduak.

- Informatikari buruzko ezagupenak izanez gero, zerrendetan horrela jasotzeko.

- EGA, HE2, HE1 edo euren baliokideren bat egiaztatzea.

Eskabideari edo erreklamazioari baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak eta baremorako merezimenduen ziurtagiriak gehituko zaizkio.

Eskariak eta erreklamazioak hezkuntzako lurralde ordezkarietara bertaratuta egin daitezke edo online (irakaslegunearen bitartez).

Irailaren 1etik abuztuaren 31ra arte barematuko da, urte osoko lanaldiaren 12 puntu izango dira, eta birbarematzeko epea urria aldera izango da.

11.5. BAREMAZIO IRIZPIDEAK

Zerbitzu egunak zenbatzeko apirilaren edo maiatzaren erdialdera zerrendak ixten dira eta egun horretarainoko zerbitzu egunak kontuan hartzen dira. Gogoratu sare publikoan hilabetez emandako zerbitzuagatik (30 egun) puntu bat dela eta pribatuan berriz hilabeteke 0,5. Eskabide edo erreklamazioak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako batera baino ez dira bidaliko, beti ere ezarritako epe barruan.

Hilabetera, 30 egunetara, iristen ez diren zerbitzuek ez dute puntuaziorik gehituko, baina zerrendan puntuazio berdinarekin diren izangaien ordena erabakitzeko erabiliko dira, eta beste denboraldi batean egingo diren zerbitzuei gehitzeko gordeko dira.

12. ESLEIPENAK

Hezkuntza sailak maiatza aldera ikastetxeen esleipen egutegia argitaratuko du Hezkuntzako web orrian.

12.1. FINKOAK, LEP ARTEKOAK (BAKANTEAK) ETA SENTENTZIA BIDEZKO MUGAGABE EZ FINKOAK

Hezkuntza Laguntzako Espezialista langile finkoek, LEP arteko kontratudunek (bakantea) eta sententzia bidezko mugagabe ez finkoek maiatza-ekaina aldera egiten dituzte esleipenak, bakoitzari dagokion Berritzegunean. Hurrengo ikasturtean egongo diren jardun osoko kontratu guztiak eskaintzen dira bertan.

Esleipen hau langileen adostasunez egingo da. Adostasunik ez balego lanpostu egokitzapena dutenei lanpostua egokituko zaie lehenik, jarraian finkoen esleipen telematikoa burutuko da. Lehenitasun hauen arabera jokatu da:

- 1) Ikastetxean egonkortasuna (antzinatasun handiena).
- 2) Berdinketa izanez gero, edo lehenengo lehenitasun-irizpidea ezin bada ezarri, lehenitasuna izango dute azken bi ikasturteetan ikasgela egonkorretan zerbitzua eman duten langileek.
- 3) Aurreko irizpidean berdinketa gertatuz gero, Berritzegunean antzinatasun handiena duenak. Esleitu zaien ikastetxean beharrik ez dagoela-eta berritzegunearen esparruan erreferentziazko zentrorik ez duten langileek.
- 4) Berritzegunearen eremuaren barruan borondatez zentroz aldatu nahi duten langileek.
- 5) Berritzegunearen eremuari dagokion barrutian sartutako langile finkoak.

Zenbait pertsona baldintza bertsuetan egonez gero, honako hauek izango dira berdinketa hausteko irizpideak, ordena honetan:

- 1) Berritzeguneko barruti horretan metatutako antzinatasuna.
- 2) Hezkuntza Bereziko lan-kolektiboan metatutako antzinatasuna.
- 3) Sarbide-nota.
- 4) Izen-abizenen alfabeto-hurrenkera, ikasturte bakoitzerako zozketa bidez urtero ezartzen den letraren hurrenkeran, zeina aplikagarria baita Hezkuntza Saileko langile-hautagaien deialdietan eta hautaketa-prozesuetan.

Ondoren bakantedunen eta mugagabe ez-finkoen esleipena egingo da. Horretarako finkoen irizpide berak jarraituko dira.

12.2. ORDEZKOAK

Heziketa berezian ordezkapenak egiten dituzten langileek lanpostu bat eskuratzeko esleipen telematikoak dituzte, COCU/ IKHA izenekoak. Esleipen prozesua ekaina aldera burutzen da eta esleitzen diren kontratuak irailetik aurrera indarrean jartzen dira. Hezkuntza Sailak egutegia, plazen zerrenda eta parte hartzaileen zerrenda argitaratzen ditu aurretik. Esleipenetan lanpostuen eskaera egiteko bi eguneko tartea egoten da. Hezigunearen bitartez gauzatzen da prozesu osoa.

Ikasturte hasierako esleipen prozesuan parte hartu ahal izateko lanaldi partzialeko ordezkapenei eta lanaldi partzialeko bakante kontratuei borondatez uko egiteko aukera egongo da aurretik.

Lanpostuak esleitzeko prozedurari hasiera ematen dion ebazpenean derrigorrean parte hartu behar izateko gutxienezko puntuazioa finkatzen da.

12.2.1. PROZEDURA

1. Esleipenean parte hartzeko, ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendan lanerako prest egoeran egotea beharrezkoa da.

2. Halaber, adierazitako puntuazioa edo handiagoa duten, lan-istripuagatik edo lan gaixotasunagatik, edo haurra izan dutelako aldi baterako ezintasuneko egoeran; amatasun-aitatasun egoeran; haurdunaldian arriskua edo arriskuko haurdunaldian; edo adopzioagatik edo harreragatik aldi baterako bajaran; edo jardunaldi-etete iragankorrean dauden ordezkogaiak, betiere egoera horiek behar bezala justifikatuz gero postua aukeratuko dute esleipen prozesuan eta baja egoera bukatu arteko denbora zerbitzalditzat zenbatuko zaie, zerrendak birbarematzeari dagokionez bakarrik bada ere. Zerbitzaldi horrek ez du eraginik izango "antzinatasunean" izeneko ordainsari osagarrian, ez eta Gizarte Segurantzaren ondorioetarako ere, ez delako benetako zerbitzurik eman.

Egoera horietako batean dauden hautagaiak ikasturtean zehar hasi ahalko dira lanean lanpostu horretan, egoera hori sortu duen gertakaria amaitzen denean.

3. *Postua aukeratzeko pertsona bakoitzak adierazitako hizkuntza-eskakizunarekin, lanaldiarekin eta lurralde historikorekin bat etorri beharko da.*

Kontratua formalizatzen den datan, hautagaiak Adingabeak Babesteko Lege Organikoaren 13.5 artikulua adierazitako betekizunarekin lotutako ziurtagiri negatiboa

izatea egiaztatu behar dute edo Administrazioari baimena eman behar diote Sexu Delinkuenteen Erregistro Zentralean kontsulta dezan.

4. *Borondatezko parte-hartzea eta derrigorrezkoa:*

Puntuazio minimoa edo handiagoa duten langileek derrigorrez parte hartu behar dute. Puntuazio minimora ailegatzen ez diren langileek borondatez parte har dezakete. Ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da.

5. *Borondatezko eskaerak eta derrigorrezkoak:*

Eskabidea formalizatuko da prozedura abiarazteko ebazpenak adierazten duen epean <http://www.irakasle.eus> helbidean. Identifikatzeko, erabiltzailea eta pasahitza erabiliko dira, eta , hori izan ezean, NAN zenbakiaren bidez alta eman beharko da. Aplikazioan lehen aldiz sartzean, eskabideari alta emango zaio, eta parte-hartzaile bakoitzak bere identitate-datuak eta prozesuan parte hartzeko datuak kontsultatu ahal izango ditu.

Nahitaez parte hartu behar duten pertsonen eskabidean, dagokion zerrendan pertsona bakoitzak adierazitako hizkuntza-eskakizunetara, lanaldira eta lurralde historikora egokitzen diren lanpostu guztiak jaso beharko dira. Eskabiderik aurkezten ez badute, sistema informatikoak derrigorrezko eskaera bat egingo du parte-hartzaileak lehendik zehaztutako sarbide-baldintzak (hizkuntza-eskakizunetara, lanaldira eta lurralde historikora) kontutan edukiz. Nahitaez parte hartu behar duten langileek eskabide boluntario bat egiten badute sarbide-baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak agortu gabe, sistemak derrigorrez sortzen dituen eskaerak azken eskaera boluntarioaren ondoren ordenatuko ditu.

Modu boluntarioan esleipenetan parte hartzen dutenek sarbide-baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak agortu gabe egin ahalko dute eskabidea, eskaera horiek bakarrik hartuko dira aintzat eta ez zaie inolaz ere derrigorrean lanpostu bat esleituko.

6. *Borondatezko eskabideak egiteko modua:*

Pertsona bakoitzak eskabide bakarra formalizatuko du. Eskabideak datuak sartzeko 500 lerro ditu, lerro bakoitzaren hasieran agertzen den eskabide-zenbakiak egindako eskaera ezberdinen arteko hautaketa-lehentasuna ezartzen du.

Eskabidea lanpostu zehatzen gainean egin daiteke, "Lanp.hur.-zk." zutabeari dagokion laukitxoan, prozedura abiarazteko ebazpenean lanpostu zehatz horri esleitutako zenbakia adieraziko da.

Era berean, eskabidea eskaera generikoen bidez ere egin daiteke, lanpostu zehatz bat adierazten ez duena, baizik eta ondorengo kontzeptu guztiak edo batzuk aukeratzen egiten dena: kategoria, lurralde historikoa, lanaldia, hizkuntza eskakizuna edota destinoa.

Eskabide berean, lanpostu zehatzak eta lanpostu generikoak nahasi daitezke.

7. Eskabidea aldatzea eta ixtea:

Eskabideari alta eman ondoren, irekita egongo da eta edozein unetan egin daitezke aldaketak, aurkezteko epea zabalik dagoen bitartean. Eskabidea pertsonak berak hala erabakita itxiko da, edo, bestela, automatikoki, epea amaitutakoan. Horrela, ordura arte grabatu dena hartuko da kontuan. Eskabidea itxi ondoren, ezingo da inolako aldaketarik egin, eta parte-hartzaile bakoitzak inprimaki bat lor dezake erregistratutako aukera eta eskaerekin.

8. Eskabidea eta eskaerak balioestea:

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, sistemak sartutako datuak egiaztatuko ditu eta, hala badagokio, ez ditu onartuko lanpostuak lortzeko baldintzaren bat betetzen ez dituen parte-hartzaileen eskaerak. Era berean, ez dira onartuko elementu inkoherenteak dituzten eskaerak, ezta deialdikoak ez diren lanpostuak edo parte-hartzaileak eskatu ezin dituen zentroak edo lanpostuak begiesten dituzten eskaerak ere. Behin-behineko ebazpena argitaratzen den unetik aurrera, parte hartzeko benetako baldintzak jasotzen dituen inprimaki bat eskura daiteke, zer eskaera eta aukera onartu diren eta zein baztertu diren jasoko duena.

9. Lanpostuen antolaketa automatikoa eskaera generikoetan eta derrigorrezkoetan:

Eskaera generikoetan eta derrigorrezkoetan jasotako lanpostuak prozedura abiarazteko ebazpenean ezartzen den ordenaren arabera zerrendatuko dira: - Kategoriaren arabera, ordena honetan: fisioterapeuta, okupaziozko terapeuta, hezkuntza laguntzako espezialistak, Transkribatzailea/ material egokitzailea eta Zeinu Mintzairan interpretea

- Lurralde historikoak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, hurrenez hurren.

- Lanaldi osoa; lanaldi partziala.

- Hizkuntza-eskakizuna, lehenik hizkuntza-eskakizuna dutenak eta ondoren hizkuntza-eskakizunik gabekoak.

- Destinoak arabera, Lanpostuen Zerrendan hezkuntza-langileen lanpostuak zerrendatzen diren destino-ordenaren arabera.

10. Lanpostuak adjudikatzeko irizpideak:

Lanpostuen esleipena hautagai-zerrenden hurrenkeraren arabera egingo da. Pertsona bakoitzari, bere eskabidea osatzen duten lanpostuetatik, lehenengo librea eta baliouduna esleituko zaio.

HLEA hizkuntza-eskakizuna dutenek HLEA hizkuntza-eskakizuna duten eta 1. hizkuntza-eskakizuna lanpostuetarako sarrera izango dute.

1. hizkuntza-eskakizuna soilik egiaztatu duten pertsonak 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak eskuratuko dituzte.

Hizkuntza-eskakizun egiaztaturik ez duten pertsonak 1. hizkuntza-eskakizuneko eta derrigortasun-datarik gabeko lanpostuak eskuratuko dituzte.

11. Lanpostuen behin-behineko eta behin betiko esleipenak:

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez -Irakaslegunean eta Hezkuntza Saileko webgunean argitaratuko da- behin behinean esleituko dira lanpostuak; erreklamazioak aurkez daitezke Irakaslegunean eskuragarri dagoen aplikazio elektronikoaren bidez, <http://www.irakasle.eus> helbidetik sartuta.

Erreklamazioak aztertu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariak lanpostuen behin betiko ebazpena emango du eta modu berean argitaratuko da.

12. Esleipenaren izaera utziezina eta kontratua formalizatzea:

Esleitutako lanpostuak betetzeari ezin zaio uko egin, irakasle ordezkogaien kasuan izan ezik, zerrenda kudeatzeko araudian jasota dagoen uko egiteko kasuren bat gertatzen bada, baldin eta kausa hori aurreikusi ezin diren egoeren ondoriozkoa bada, eskabideak aurkezteko epea hasi baino hiru egun lehenagotik lanpostuaz jabetu arte egin bada, eta alegatzen duenak borondatez egindako ekintza baten ondorioz ez bada.

Lanpostu bat esleitu zaion langilea 2.puntuan azaldutako egoeran badago, dagokion lurralde-ordezkaritzari jakinarazi beharko dio, baldin eta egoerak ikasturte berrian jarraituko badu. Langile horien kontratuak egoera berezi horiek amaitzen direnean formalizatuko dira.

Adjudikazioaren ondoren, lan-kontratua idatziz formalizatu beharko da.

13. HAURDUNALDIA, GURASOTASUNA ETA EDOSKITZEA

13.1. LANEKO ARRISKUAK HAURDUNALDIAN

Haurdunaldi kasuetan laneko arriskua dagoela ikusiz gero, ondorengo pausuak eman behar dira “laneko arriskuagatik baja” mutuak bideratu dezan. Haurdunaldiaren 18. astean tramitea hastea komenigarria da, batzuetan prozesua luzatzen baita, baina arinegi eskatzen bada ezetza jasotzeko arriskua dago. Mutuatik baja hartu ahal izateko ezinbestekoa da Gizarte Segurantzatik baja egoeran ez egotea bestela ezin baita tramitatu.

Langile bakoitzari dagokion lurralde ordezkariarekin kontaktuan jarri eta kasua azaldu behar da, hauek prebentzio zerbitzuarekin kontaktuan jarriko zaituzte eta tramitatzen hasiko dira. Prebentzio zerbitzuak lanpostuaren balorazioa egingo du eta txostena bidali analisi serologiko bat egiteko. Behin analisia eginda dagoela datu guztiekin mutua bidaliko ditu dokumentu guztiak. Mutuak paperak jasotzen dituenean bertako medikuekin hitzordua emango du, behin haiekin egon eta gero bajaren hasiera data zehaztuko dute.

13.2. AMA BIOLOGIKOAREN JAIOTZAGATIKO BAIMENA ETA AMA BIOLOGIKOA EZ DEN BESTE GURASOAREN SEME-ALABAREN JAIOTZA BAIMENA

Hitzarmen honen eraginpeko langileek haurdunaldiko eta erditzeko lizentzia har dezakete. Lizentziak hemezortzi asteko iraupena izango du ama biologikoaren kasuan (lehenengo 16ak Gizarte Segurantzak ordainduko ditu eta beste biak Eusko Jaularitzak), eta erditze anitza izanez gero, bi aste luzatu daiteke seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik hasita. Erditu ez duen gurasoaren lizentzia ere 18 astekoa izango da (2020. urtean 12 aste Gizarte Segurantzak 6 aste Eusko Jaularitzak eta 2021. urtetik aurre 16 aste Gizarte Segurantzak eta 2 Eusko Jaularitzak). Eusko Jaularitzak emandako hobekuntza zati hauek etenik gabe gozatu beharko dira eta oinarrizko arauak emandako borondatezko zatia amaitzen denean hartu beharko da.

	Ama biologikoa	Ama biologikoa, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoa	
		2020	2021
Oinarrizko araudiko nahitaezko zatia	6 aste	4 aste	6 aste
Oinarrizko araudiko borondatezko zatia	10 aste	8 aste	10 aste
Eusko Jaularitzak hobetutako zatia	2 aste	6 aste	2 aste

Borondatezko zatia:

Etenik gabe baimen aldiko aste guztiak agortu arte. Nahitaezkoa izango da kasu hauetan:

- Bi gurasoetako batek lanik egiten ez duenean.
- Adopzio, zaintza edo harreretan, haurra 12 hilabetetik gorakoa denean.

Baimena zatika hartzeko bi gurasoak lanean egon behar dira. Astez aste hartuko dira baimen-zatiak, haurrak 12 hilabete bete arte.

- Ama biologikoa denean: nahi duenean, nahitaezkoak diren 6 asteak eta gero.
- Beste gurasoa denean:
 - Ama biologikoaren nahitaezko atsedenaldea amaitu eta gero edo ama biologikoaren edo beste adoptatzaile edo zaintzailearen baimena amaitu eta gero (Hobekuntzan luzatutako asteak barne).
 - Jaiotza baimenaren ondoren ama biologikoak edo beste adoptatzaile, zaintzaile edo harrerako gurasoak eskatzen badu haurraren edoskitze denbora lanaldi osoetan metatzea, denbora hori igarotakoan hasiko da gainerako baimen-asteen kontaketa.

Baimena zatika hartzen denean , aste osoetan banatuta hartuko da, eta baimen zati bakoitza hartzeko aurreabisu errebokaezina egin beharko da, gutxienez 15 egun lehenago.

Hobekuntza zatia etenik gabe gozatu beharko da, eta berehala hartu beharko da borondatezko zatia, duen iraupena duela, amaitzen denean.

Hobekuntza hori etenik gabe gozatu beharretik salbuetsita geratuko dira, izendapenaren edo kontratuaren iraupena dela eta, etenik gabe hartu ezin dutenak; kasu horretan , hurrengo izendapenean edo kontratuan berehala jarraituko dute baimenarekin , harik eta agortu arte, betiere ere haurrak 12 hilabete bete aurretik.

- Aurrez abisatutako baimena hartu aurretik lan istripuren bat gertatuz gero, baimen hori gero hartzeko utzia ahalko da, betiere haurrak 12 hilabete bete aurretik.
- Ama biologikoa hiltzen bada, beste gurasoak baliatu ahalko ditu zegozkion edo geratzen zitzaion baimen zatia.

ORDEZKOEN KASUAN

Gurasotasuneko nahitaezko zatia hartu ondoren ordezkoen kasuan kontratu berri bat izendatzen zaienean, gurasotasun baimenarekin jarraitu ahalko dute. Horretarako, esleipen bat jasotzen dutenean lanera ez direla joango eta gurasotasun baimenarekin jarraituko dutela adierazi behar dute (kasu honetan ez da 15 egun lehenago abisatu behar edo aste osoko zatiak hartu behar), horrela baimen guztia agortu arte edo umeak 12 hilabete bete arte.

13.3. EDOSKITZEA

- Baimen indibiduala da, guraso bakoitzaren eskubidea eta transferiezina. Baimenaldi osoa amaitutakoan hartu beharko da, nahi den modura:
 - Lantokitik ordu bete alde egitea, bi zatitan banatzeko aukerarekin.
 - Pilatzeko aukera. Kasu honetan, laneguneko 6 ordu kontatzen dira (24 egun gutxi gora behera). Jardun erdiaren kasuan, 48 egun eta herenaren kasuan, 72 egun metatzen dira(gutxi gora behera). Delegaritzan egiten dute kalkulu zehatza.
- Pilaketa hautatuz gero, urte horretan zerbitzuak aldi baterako eteteko aukera eta eszedentzia eskatzeko aukera galduko lirateke.
- Langile kudeaketarako zuzendariak emandako eskabide orria bete behar du.

13.4. ADOPZIO, ADOPZIO AURREKO ZAINZA EDO HARRERA ALDI BATERAKO ZEIN IRAUNKORGATIKO BAIMENA

Sei urte arteko adopzio eta ume hartze kasuetan, bai adopzio aurreko baita iraunkorrak direnean, langileak ondoz ondoko hemezortzi asteko lizentzia hartu ahal izango du, adopzioa gauzatu den egunetik lehenengo 6 asteak derrigorrezkoak dira bi gurasoentzako, hurrengoak jarraian hartu ahal dira edo asteka txandakatuta (15 egun lehenago abisatu behar da) Eusko Jaurlaritzak ematen dituen asteak, Gizarte Segurantzak ematen dituen asteen jarraian hartu behar dira. Gainera adopzioa edo ume-hartzea multiplea bada, bi aste gehiago luza daiteke lizentzia seme-alaba bakoitzeko, bigarren seme-alabatik hasita. Aste horiek guztiak langileak nahi dituenean hasiko ditu, ume-hartzearen inguruko administrazio-erabakia edo erabaki judiziala ezagutzean edo adopzioa finkatzen duen ebazpen judizialaren berri izatean.

Baimena, era berean, hemezortzi astekoa izango da sei urtetik gorako haurrak adoptatzen edo hartzen diren kasuetan, haurrok ezgaituak edo elbarriak badira, edo,

inguruabar eta esperientzia pertsonalak direla-eta edota atzerritik datozelako, gizartean eta familian txertatzeko arazo bereziak badituzte eta gizarte-zerbitzu eskudunek behar bezala egiaztatu badituzte arazo horiek.

Haurra atzerrian adoptatuz gero, gurasoek adoptatu nahi duten haurraren jaioterrira joan behar badute, artikuluko honek kasu bakoitzean ezartzen duen baimena adopzioa gauzatzen duen ebazpena eman baino lau aste lehenago ere hasi ahal izango da.

Oporraldia eta haurrak adoptatzeko eta hartzeko lizentzia-aldia metatu ahal izango dira, nahiz eta aldiari dagokion egutegiko urtea amaiturik egon.

14. LAN ISTRIPUAK/ BAJA ARRUNTAK

Aldi baterako ezintasuneko (gaixotasun baja) kasuetan. Gizarte Segurantzak ordaintzen duen prestazioa administrazioak osatuko du lehenengo egunetik. Nominan bi atal azalduko dira: Gizarte Segurantzari dagokiona eta Departamentuak osatzen duen zatia. Kobratu ahal izateko azken 5 urteetan 180 eguneko kotizazioa eduki behar da. Gaixotasun profesionala edo lan-istripuaren kasuetan, aldiz, ez da kotizatutako lanaldirik izan behar.

Hala ere, adi egon ordezkapen bat eskuratu eta lehenengo egunean gaixotuz gero, ez hartu baja egun bereko datarekin, Lurralde Ordezkaritzak ez baitu lan kontratua aintzakotzat hartuko eta ondorioz ez dio Gizarte Segurantzari gaixotasunaz informatuko. Beraz ez litzateke baja hori kobratuko eta izendapena bertan behera geratuko litzateke.

Lanean egon bitartean baja hartzen baduzu eta bitarte horretan titularra bueltatzen bada, zuk alta hartu arte Gizarte Segurantzatik kobratuko duzu (titularra joan denetik ordezkoak alta izan arteko egun horiek), baina langabezia-sariaren zenbatekoaren arabera. Alta hartu arte kontratu gabeko egun horiek langabezia-prestaziotik deskonta ditzakete. Gizarte Segurantzako bulegora joan behar da bajaren ordainketa zuzena tramitatzeko.

Lan istripu edo laneko gaixotasun kasuetan, 112 telefonora deitu larria izanez gero, arina baldin bada Mutualiak dituen asistentzia zentroetara joan, taxia behar izanez gero, faktura eskatu eta mutualitateak berak ordainduko du. Informazio telefonoak:

Araba: 945008888
Bizkaia:944252500
Gipuzkoa:943505000

15. LANGABEZIA

SEPEk ezartzen duen araudi orokorraren arabera, langabezi saria kobratzeko eskubidea izateko urtebeteko lanaldia osatu behar da (jarraian edo ez jarraian) azkeneko 6 urteetan. Prestazioa kobratzeko denboraldia lan egindako denboraren arabera definituko da.

Eskubidea gauzatzeko eskaera SEPEko bulegoetan egin behar da, kontratua amaitzen denetik 15 lan eguneko epe barruan. Ez bada epe honen barruan egiten ez da eskubidea galtzen baina bai dirua.

Prestazioaren zenbatekoa Oinarri Arautzailearen(OA) arabera: OAren %70a lehenengo 6 hilabeteetan eta %60a hortik aurrera. Oinarri Arautzailea kalkulatzeko lan egin den azken 6 hilabeteetako kotizazioen bataz bestekoa egiten da. Azken 6 hilabeteetan jardunaldi murriztuko lanaldietan aritu izanez gero, kotizazioak jardunaldi horren arabekoak izango dira.

Aldizkako ordezkapenak egiten diren kasuetan langabezi saria, norberaren interesen arabera, edozein ordezkapen aldi egin ondotik eska daiteke.

Langabezi saria gozatzeko eskubideak ez ditu aintzat hartzen jardunaldiaren ezaugarriak (murriztuak edo osoak), lan egindako egun kopurua baizik.

PRESTAZIO PARTZIALA

Araudiaren arabera, ordezkoek prestazio partziala jasotzeko eskubidea dugu hurrengo kasuan: ordezkapen baten ondotik langabezia-saria eskatzen badugu, eta prestazio hori kobratzeko eskubidea duen denboraldiaren barruan jardunaldi murriztuko ordezkapen bat hartzen badugu, kobratzen ari den prestazioaren zati proportzionala jasotzen segi dezakegu. Hori bai, prestazio partzial hori jasotzeak langabezia-sariaren egunak kontsumitzea dakar, eta gastatutako langabezia-sariaren egunak jardunaldi murriztuarena izan arren jardunaldi osoko bezala konputatuko dira.

16. OHIKO GALDERAK

- Eskolaz kanpoko ekintzak

Hezkuntza Laguntzako Espezialistek ez dute parte hartzen eskolaz kanpoko ekintzetan.

- Hauspoa / HEDATZEN

Hauspoa proiektua daukaten ikastetxeetako lanpostuak hartzeko derrigortasunik ez dago, baina lanpostu hori behin onartuz gero, proiektuan parte hartzera behartuta egongo da langilea (bakarrik curriculuma finkatzeko jardueretan), hauek ezin izango dute 17:00 baino beranduago bukatu eta arreta zuzeneko 30 orduak errespetatu behar dira.

2022/23 ikasturtean Hauspoa proiektuaren ordean HEDATZEN proiektua sortu da. Langileengan eragina izango duen aztertze dago eta oraindik ez dakigu Hauspoarekin izandako baldintza berdinak HEDATZEN proiektuan aplikatuko diren ala ez.

- Berritzeguneko bilerak/formazioa

Prestakuntza funtzio eta eginkizunei lotuta egongo da. Ekainaren edo irailaren lehenengo astean egingo da. Prestakuntza hori aurrera eramateko, HLE pertsonalaren proposamenak hartuko dira kontuan.

Prestakuntza eremuka, dagokion Berritzegunearen bitartez egingo da. Eremu jakin bateko eskari zehatzak bilduko dira eta prestakuntza birziklapena egin behar den barrutira edo biztanleriara egokituko da. Prestakuntza agentea eta kudeatzailea Berritzegunea bera izango da.

Berritzeguneekin ikasturtean zehar, lau koordinazio/formakuntza saio egongo dira. Lehenengoa irailean eta azkena ekainean. Ordu-tegiak, ikasleen arreta kaltetua izan ez dadin antolatuko dira. Joan beharra dago.

- Klaustroak

Koordinazio orduen barruan, ikastetxeko zuzendaritzak hezitzaileei klaustroko saioetan parte hartzeko aukera eskainiko die, koordinazioa hobetzeko eta haien integrazioa ahalbidetzeko.

-Ikasleen kodeak/ez badu koderik?

Hezkuntza Premia Berezia duten ikasleek jasotzen duten laguntza kopurua kodeen bidez antolatzen da:

300.6a: Aldizkakoa(tarteko laguntza eta krisialdi momentuetan)

300.6b: Mugatua (astean 1 eta 6 ordu bitartekoa)

300.6c: Zabala (asteen 7 eta 15 ordu bitartekoa)

300.6d: Orokortua (asteen 16 eta 25 ordu bitartekoa)

300.6e: Jangela

300.6f: Garraioa

Koderik gabeko ikasleek ez dute hezitzailearen laguntza jasoko.

- Ikastetxeetan jasotako prestakuntza

Hezitzaile guztiek ikastetxeek diseinatutako prestakuntza plangintzan parte hartu ahal izango dute nahi izanez gero, ikastetxe bakoitzeko gainerako parte hartzaileak bezala eta hauei aplikatzen zaizkien baldintzetan.

- Oporrak berreskuratzeko eskubideak.

Udako opor garaian (abuztuan) bajaran (gaixotasun, gurasotasun, haurdunaldi...) egonez gero ,egoera hori amaitzerakoan opor egun horiek berreskuratu ahalko dira, kasu honetan 30 egun natural izango dira.

- Autonomia pertsonalerako programak

Autonomia pertsonaleko programa bakoitzaren xehetasunak berritzeguneetako hezkuntza premia bereziko aholkulariek eta ikastetxeko aholkulariek ezarriko dituzte.

- Bizi lekutik kanpo gaua igarotzea.

Zerbitzuko beharrianak direla eta ikasleari bere bizilekutik kanpo gaua igarotzera lagundu behar baldin badiogu, lan-orduak kontatzeko orduan, kanpoan igarotako egun bakoitzeko egun eta erdi (1,5 egun) zenbatuko da. Eta jaiegunarekin suertatzen bada, bi egun zenbatuko dira. Ez gaude behartuta joateko.

17. LANEKO OSASUNA ETA SEGURTASUNA

Mahai parekidean aztertuko dira osasun arrazoiengatik arrisku egoeran dauden langileen kasuan abian jar daitezkeen neurriak eta prozedurak; Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak ere parte hartuko du azterketa horretan, betiere, beharrezkoak diren berme juridiko guztiekin.

Lanpostuaren ebaluazio medikua bideratzeko Prebentzio Zerbitzutik bideratu behar da. Horretarako eskaera egin behar da.

Emaila: prebentziohezkuntza@euskadi.eus.

Lan Osasunaren inguruko zalantzak sortzen bazaizkizu jarri gurekin harremanetan.

Saioa Karmele Roa: heziketabereziaraba@lab.eus.

19. HEZKUNTZA LURRALDE ORDEZKARITZETAKO TELEFONO ETA EMAILAK

Araba:

Orokorra: 945 01 72 00
Heziketa Berezia: 945 01 72 18
945 01 72 57
arabaei@euskadi.eus
Nominak: 945 01 72 38
945 01 72 39
945 01 72 01
arabanomina@euskadi.eus
arabanom@euskadi.eus

Gipuzkoa:

Orokorra: 943 02 28 50
Heziketa Berezia: 943 02 28 74
943 02 29 12
eigipuzkoa@euskadi.eus
Nominak: 943 02 28 52
943 02 52 75
943 02 28 77
nominagipuzkoa@euskadi.eus

Bizkaia:

Orokorra: 944 03 10 69
Heziketa Berezia: 944 03 10 65
944 03 11 63
944 03 11 37
944 03 11 44
944 03 11 08
bizkaiaei@euskadi.eus
Nominak: 944 03 11 38
bizkaianomina@euskadi.eus

IRAKASLE ZERRENDETARA PASATZEKO BAIMENA ESKATZEKO EREDUA

Sindikatuetikiko Harremanetarako Departamentua
Eusko Jaurlaritza
Vitoria-Gasteiz

(Izen abizenak, NAN zenbakia eta telefono zenbakiarekin), Hezkuntza Departamentuko Heziketa Berezian (espezialista, fisioterapeuta edo.....) kategorian langilea (.....) Berritzeguneko (.....) ikastetxean.

ESKATZEN DUT

Administrazio Publikoetako Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunen Legera atxikitzea, (.....) ikastetxean Hezkuntza Departamenturako ordezkapen bat betetzeko (PT, LH edo...ko) lanpostuan.

Zure erantzuna ahalik eta arinen izatea nahiko nuke, datorren (data) lanean hastea posible izateko, lanpostu berrian eragozpen handirik sortu gabe, bateraezintasunagatiko eszedentzia eskatuta.

Besterik gabe, erantzunaren zain geratzen naiz.

Aurretiaz eskerrak emanez

(sinadura)